Erref. kodea: LAF-322-160

Izenburua: Seminarioko hainbat ikasleen lanak, sariketarako aurkeztuak, [1938-1950]

Travaux de Séminaristes

pour Eus. Biltzarra

1946 etc...

Sariketak: Gaia: Euskaldunek?

LE MÉDAILLIER FRANKLIN
4 avenue de l'Escouvrier 95200 Sarcelles

94-RUNGIS PPAL
27. 3. 87
VAL-DE-MARNE

RÉPUBLIQUE FRANÇAISE
0117
POSTES
T 92345





+

[1938]

Jesus Maria eta Josepe
lagun nezazue

Pierre Charritton
17 urthe - Hazpandarra
lehen eskola

très original
connaissons lorsque
B.B

Atlantarrak

Mauvais ?

Choratua da Atlant-herria. zakinsunek ez diote buruziarik egin: Ilhargiak bere gorapen eta beherapenen saila arrunt nahasi du «Urtzi» samur ditake, Zahara aldetik igortzen ditu hedoi gorrast batzu haize idor eta suzko chimicht, burdin gozoaren indarra bezalako zer batez kargatuak.

Orai arte Atlantar jendeak egin du gaizkia. Izuritek eta gaitz guziek ichtant bat zuten bakharrik ongirat biltzen, aldi huntan beren «Urtzi» ez zaiote wori kalduko.

.....Huna nun gau batez, betbetan ortzi burrumbaren pareko orro batek iratzartzen dituen Atlantarrak. «Zer da gerthatzen? bainan ahoa idek artean, itsas gizonak, itsasoa hobekienik ezagutzen zutenak, itsasoa beren ama eta beren herria zaukatenak, iretsi ditu guziak, beren itsasoak heiek eta heienak. Nun dire bada ira-

gaikari eder heiek? Oi irriegingariak! Irriz eta trufaz, itsaso ohoinak, zuen ohetan zaituztehatcheman. Alfer dire zuen zalapartak.

Eta hola gau berean, iretsi ditu itsasoak jende ospeak, bethi aitzina badoha, bethi gose.

Jin da eguna, atsegin ~~dute~~ geldituzen ziren gizonek, orai bederen jakinen dutelanorat egin laster. Ordu horietan iguzki goibel baten den gutiemeko pindarrak bihotza alchatzen daitzu.

Orai ikhusten ahal da nundik heldu den etsaia eta abiatzen da gizona lasterka. Mundu bat gizon, emazte, haur, eri, chahar, uhain suntzidzaleeri ihesi badoha dena oihu, orro, nigar, garrazi bihotz erdiragarri. Bakotchak ahal zuena, ez segur nahi zuena, haur ttipia ohakoam utzi du behar bada, harturik badoha, bainan zer munta du, besotaraka bereganatzen ditu ttlantar dohakabeak, itsasoak

Lehenik abiatu direnak, aizina gehienik bazutenak, geldituzen dire hatshantuak

ezinduak. Iduritzen zaiote behar bada ihestoki bat kausi dezaketela, hemenchet ori zuhaitz hunen puntta punttan, edo teilatu kasko hortan, salhuena iragan ditake mendi gain hartarat.

Bi muthikochka, bi anaia, hola dire iragan zuruhuri baten punttarat, bi gathu bezain arin, jin da itsasoa, setiatu du zuhaitza, tirainek joiten zuten lorian, (~~gainean~~) trenkatu dute karraskan, zuhaitza etzan da luze luzea, ordu arte laztuak ttipia anaia zaharrenaren papoan sarthua zauden bi muthikoekin.

Ez zen untzi tchar edo taularik itsasoak ichkultzen ez zuenik bere jende molkhoarekin, ez etcherik setiatuta aurdikitzen ez zuenik bere barneko gizon eta aberekin, ez harroka ez mendirik miatzen, ithotzen, estaltzen ez zuenik.

Itsasoak orai berekin deramatza ditazken phuska mota guziak, tresna, zuhaitz larrutu, gizon abere hilak oraino bizi direnak, heien orroak eta marrumak, mendi paretetan joz barrumban, uhainek estaltzen

dituela. Ama batek besoetan atchiki bere
haur hila oraino ari zaio kopetan musu
eta musa, biak eremaiten ditu whainak
harroka muthur baten kontra, eta or-
duan bakharrik ditu herioak amaren
besoak idekitzen.

9/ Mork ditzazke erran ditzazke
herioarekin azken gizonek jesan gudukak,
heiek iragan egun alfer, choro luzeak,
heiek bai gosearen, bai egarriaren al-
detik jesan oinhatzeak, heiem azken oihu
chuchena «Ama!», heien azken garrazi
nigar edo irri zozoa

Gure Atlantar hondar arbasoak utzi-
rik, gelditu da azkenean itsasoa, hor Doni
bameko hegi horietan, ikhusi dut nik
ere hor itsaso ñabarra, ekharri dait,
haren tirainen haize gocho hotchak, arba-
soen kondaira zaharra, jadanik amatcho
ezti batek ihurtzuri demboretan entzuna
razia izana gatik, beharria eskainiz
orroama latzgarriari. Bainan ikhasi dait
ere orroamak atzerritarren whain gaichtoek
ithoren gaituztela gure ez badugu eskuara bei-
ratzen.

Ehulatey

Seminarioko sariketak

Epaimahia

ments du 1/

Goragoko mailekoer nausi dira.

Nor parista eta nori zer pariemay?

Chuchen ez nakike; zazpi, zortzi langile baititugu hor elgarren bethe direnak.

Roger Idiart, azkaindarra;
Michel Laxague, itsasuarra;
Maurice Driollet, hazpandarra;
Jean Arrayet, hazpandarra;
Andres Luberriaga, azkaindarra;
J. B. Elissalde, itsasuarra;
Robert Mendiburu, donamartiritarra;
Joanes Iratzoquy, azkaindarra.

Zuek ikus, jaunak.

Ez nagoke haatik ohartarazi gabe azkaindarretan badukegula orai arte bezala, geroan ere, eskualzale suharrik eta eskual idazle garbirik

DEPARTEMENT DES BASSES-PYRENEES

Elections Générales du 2 Juin 1946

Liste du Mouvement Républicain Populaire

Pierre de CHEVIGNE

Officier de la Légion d'Honneur = Croix de la Libération
Croix de Guerre 1939-45 = Trois blessures
Officier des Forces Françaises Combattantes
de Juin 1940 à la Victoire =:= Maire d'Abitain
Conseiller Général des Basses-Pyrénées
(Canton de Sauveterre-de-Béarn)
DEPUTE SORTANT

Jean ERRECART

Agriculteur-Exploitant = Vice-Syndic du Pays de Mixe
Membre du Conseil d'Administration
de la Fédération Départementale de la C. G. A.
Maire d'Orègue
Conseiller Général des Bas.-Pyr. (Canton de St-Palais)

Jean-Louis TINAUD

Avocat à la Cour d'Appel = Capitaine de Réserve
Croix de Guerre 1939-45 (Etoiles de Vermeil)
DEPUTE SORTANT

Jacques de MENDITTE

Prisonnier de guerre évadé
Secrétaire Fédéral du Mouvement Républicain Populaire

Jean POULHAZAN

Chevalier de la Légion d'Honneur
Docteur en Médecine = Avocat au Barreau
Président de la Fédération départementale du M.R.P.
Conseiller Municipal de Bayonne
Conseiller Général des Bass.-Pyr. (Canton de Bayonne)

Peko maitean hamalau, hamabortz urtheko mutiko gazteak etzaizku alfer egon. Zor guti dute goragokoeri Hamalau ikasletarik hiru, ene iduriko, puskaz nausi

Juanes Batista Etcharren-irulegitarra;
Pierre Trunday, ortzaiztarra;
Ichtebe Elissalde, larresororarra.

Sari bana emaiten baginiote, ez lukete segur ebatsia, bertze hirur hauiek ere:

Jan Piarre Durruty, ayhertarrak;
Manes Idiart, arnegitarrak
Chalbat Coscarat, baigorriarrak

DEPARTEMENT DES BASSES-PYRENEES

Elections Générales du 2 Juin 1946

Liste du Mouvement Républicain Populaire

Pierre de CHEVIGNE

Officier de la Légion d'Honneur - Croix de la Libération
Croix de Guerre 1939-45 - Trois blessures
Officier des Forces Françaises Combattantes
de Juin 1940 à la Victoire - Maire d'Abitain
Conseiller Général des Basses-Pyrénées
(Canton de Sauveterre-de-Béarn)
DEPUTE SORTANT

Jean ERRECART

Agriculteur-Exploitant - Vice-Syndic du Pays de Mixe
Membre du Conseil d'Administration
de la Fédération Départementale de la C. G. A.
Maire d'Orègue
Conseiller Général des Bas.-Pyr. (Canton de St-Palais)

Jean-Louis TINAUD

Avocat à la Cour d'Appel - Capitaine de Réserve
Croix de Guerre 1939-45 (Etoiles de Vermeil)
DEPUTE SORTANT

Jacques de MENDITTE

Prisonnier de guerre évadé
Secrétaire Fédéral du Mouvement Républicain Populaire

Jean POULHAZAN

Chevalier de la Légion d'Honneur
Docteur en Médecine - Avocat au Barreau
Président de la Fédération départementale du M.R.P.
Conseiller Municipal de Bayonne
Conseiller Général des Bass.-Pyr. (Canton de Bayonne)

H

Semenario handiko Aphez-gaietan

Jaun gazte horier lan bat emana gnioten
ez errechenetarik — bainan ez batzu ek zioten arranqu-
ratu diren bezain gaichtoa.

Charles Pezuy frantses idazle famatuaren
idazki zathi bat zuten jaun horiek
eskuaraz eman beharra

Ederki erakusterat eman baitaukute
eskuara badakitela kasik frantsesa
bezain ontsa

Sail hortan
Zoin gehiagoka harizan diren
peietarik hiru bederen parista-
tzekorak dira ene iduriko

Hiruak elgarri hurbil.

Jean Hiriart Urruty
Pierre Charriton } haspandarrak
Bernart Dagorret - makearra

DEPARTEMENT DES BASSES-PYRENEES

Elections Générales du 2 Juin 1946

Liste du Mouvement Républicain Populaire

Pierre de CHEVIGNE
Officier de la Légion d'Honneur = Croix de la Libération
Croix de Guerre 1939-45 = Trois blessures
Officier des Forces Françaises Combattantes
de Juin 1940 à la Victoire =:= Maire d'Abitain
Conseiller Général des Basses-Pyrénées
(Canton de Sauveterre-de-Béarn)
DEPUTE SORTANT

Jean ERRECART
Agriculteur-Exploitant = Vice-Syndic du Pays de Mixe
Membre du Conseil d'Administration
de la Fédération Départementale de la C. G. A.
Maire d'Orègue
Conseiller Général des Bas.-Pyr. (Canton de St-Palais)

Jean-Louis TINAUD
Avocat à la Cour d'Appel = Capitaine de Réserve
Croix de Guerre 1939-45 (Etoiles de Vermeil)
DEPUTE SORTANT

Jacques de MENDITTE
Prisonnier de guerre évadé
Secrétaire Fédéral du Mouvement Républicain Populaire

Jean POULHAZAN
Chevalier de la Légion d'Honneur
Docteur en Médecine = Avocat au Barreau
Président de la Fédération départementale du M.R.P.
Conseiller Municipal de Bayonne
Conseiller Général des Bass.-Pyr. (Canton de Bayonne)

Berek hautatuzko lanetan ez dira gutiagokoak agertu bertze apez-gai jaun batzu.

Arana Goiri tar Sabinen bizitzeaz egiazko liburu bat egin dauku E. Bidegainek.

Bertze hombertze hurbil Eskual-Herritik Kanpo ikusiaz eta gogoratuez, Martzel Mendiburuk.

Gero Juhañe Aguer Chuberostarrez; Erdozainen Bertrand garaztarrez; eta ~~berdin~~ mintzaira bertsu arin garbian R. Mendibilek hein bat polliki kondatu dauzku Kuanchito handiaren eta Kuanchito Hipiaren atheraldi irriegingarrik.

Almanakako berech nezake Mendibilen lana.

DEPARTEMENT DES BASSES-PYRENEES

Elections Générales du 2 Juin 1946

Liste du Mouvement Républicain Populaire

Pierre de CHEVIGNE

Officier de la Légion d'Honneur = Croix de la Libération
Croix de Guerre 1939-45 = Trois blessures
Officier des Forces Françaises Combattantes
de Juin 1940 à la Victoire =:= Maire d'Abitain
Conseiller Général des Basses-Pyrénées
(Canton de Sauveterre-de-Béarn)
DEPUTE SORTANT

Jean ERRECART

Agriculteur-Exploitant = Vice-Syndic du Pays de Mixe
Membre du Conseil d'Administration
de la Fédération Départementale de la C. G. A.
Maire d'Orègue
Conseiller Général des Bas.-Pyr. (Canton de St-Palais)

Jean-Louis TINAUD

Avocat à la Cour d'Appel = Capitaine de Réserve
Croix de Guerre 1939-45 (Etoiles de Vermeil)
DEPUTE SORTANT

Jacques de MENDITTE

Prisonnier de guerre évadé
Secrétaire Fédéral du Mouvement Républicain Populaire

Jean POULHAZAN

Chevalier de la Légion d'Honneur
Docteur en Médecine = Avocat au Barreau
Président de la Fédération départementale du M.R.P.
Conseiller Municipal de Bayonne
Conseiller Général des Bass.-Pyr. (Canton de Bayonne)

Alemanian 6

Bere lanari izen buruz ~~[illegible]~~ eman dio Amiotz sempertarrak.

Alemaniarat erranez hobeki deithuko baitzuen, ene ustez bederen.

Oro har, uzta ederra. Badakit ez dela uzta paltzeko - Bainan, futcho, lanak berea behar du. Milakoak eta milakoak behar giniuzke ~~[illegible]~~ hartze dutenaren langile on hoieri emaiteko.

Dufau, moltseroak ~~[illegible]~~ azken hitza bere.

P

DEPARTEMENT DES BASSES-PYRENEES

Elections Générales du 2 Juin 1946

Liste du Mouvement Républicain Populaire

Pierre de CHEVIGNE

Officier de la Légion d'Honneur - Croix de la Libération
Croix de Guerre 1939-45 - Trois blessures
Officier des Forces Françaises Combattantes
de Juin 1940 à la Victoire - Maire d'Abitain
Conseiller Général des Basses-Pyrénées
(Canton de Sauveterre-de-Béarn)
DEPUTE SORTANT

Jean ERRECART

Agriculteur-Exploitant - Vice-Syndic du Pays de Mixe
Membre du Conseil d'Administration
de la Fédération Départementale de la C. G. A.
Maire d'Orègue
Conseiller Général des Bas.-Pyr. (Canton de St-Palais)

Jean-Louis TINAUD

Avocat à la Cour d'Appel - Capitaine de Réserve
Croix de Guerre 1939-45 (Etoiles de Vermeil)
DEPUTE SORTANT

Jacques de MENDITTE

Prisonnier de guerre évadé
Secrétaire Fédéral du Mouvement Républicain Populaire

Jean POULHAZAN

Chevalier de la Légion d'Honneur
Docteur en Médecine - Avocat au Barreau
Président de la Fédération départementale du M.R.P.
Conseiller Municipal de Bayonne
Conseiller Général des Bass.-Pyr. (Canton de Bayonne)

Seminarioko sarketa
(Itzulpena): Alegiak
'Otsoa eta bildotsa'

Paul Iribarren

Ezpeletarra

16 urthe

Uztaritzeko ikhastegikoa

2-garren eskolakoa.

Otsoa eta bildotcha

Azkarrenaren arrazoina bethi hoberena da. Ichtantean, dugu erakutsiko.

Ur argi baten bazterrean, bildotch bat edaten ari zen. Jin zen otso bat, barurik, suertearen ondotik zabilarik eta goseak toki horietarat bildurik. "Zerk emaiten dauk nere edariaren golbeltzeko kopeta?" dio alimaleak errabiaz betherik "Hire zuhurtzia eskasaz gaztigatua izanen haiz." - "Jauna, ihardesten du bildotchak, zure handitaruna ez dadila kolera, bainan, denik ere, ikhus dezala ur edaten ari naizela, hartarik hogoi pausu baino beherago eta, beraz, ez dudala nehundik haren edaria golbeltzen ahal". - "Zikhintzen duk, ihardesten du otso ralbai horrek eta bazakiat nitaz gaizkia erran dukala iragan urthean". "Nola eginen nuen, ez nintzanaz gainean sorthua?" dio bildotchak. "Oraino nere amaren errapean naiz" - "Ez balin

Piarres Dirubarne.
Bardoztarra.
Hama-bortz urthe.
3-garren escola.
Ustaritzeko Seminarioan.

Otsoa eta bildotcha.

Azkarrenaren arrazoinak bethi abantailak ditu, berehala erakutsiko dugu.

Bildotch bat bere egarria apazegatu nahiz ari zen latsa baten ur argian.

Otso bat heldu da barura, jateko zerbaiten menturaz beta, eta goseteak toki hortarat eramaki zuena:

« Nork utzi hau ene edaria zikintzerat? erraten dio alimale errabiatu horrek: Hire ausartziaz punitua izanen haiz.-

— Jauna, Bildotchak erreposturi, zure handitasuna ez ~~dab~~ dadin samur; bainan ikus dezala hogoi urhats baino bere azpian ur edaten ari naizela; eta, orduan, ez dudala nehola ere bere edaria zikintzen ahal.

— Zikintzen duk! berriz erran zion alimale kruel horrek, eta, badakit joan den urthean

bahiz hi, hire anaia duk, beraz "—" Ez dut anaiarik"-
"Hire kasetako norbait duk beraz, zeren ez baitzarezte
nitaz urrikari, zuek, zuen artzainak eta (~~bildot~~) zakurrak
Ernan zautaie: mendekatu behar diat." Hitz horien
ondotik, oihan zokhoetarat otsoak johan du eta jaten
gehiagoko jujamendurik gabe.

---

ene fama ona biphiltzen ari hintzela.
– Kola egin behar nuen, ez banintz sortua?
ihardetsi zion bildotchak,
ene amaren esnia oraino egoskiten dut.
– Hi ez balin bahaiz, hire aneia da' beraz.
– Hetarik ez dut.
– Beraz, ~~hire~~tarik norbait da,
ezen, ez bainazue esparniatzen
zuek, zuen artzainek ez eta ~~z~~zakurrek.
Erran daute: mendekatu behar dut.»
Hortan, oihan zoletarat erematen du otsoak,
eta gero, jaten du,
bertze chehetasunik gabe.

P. Dinibarne

Roger Idiart

Azkaindarra

15 urthe

Uztaritzeko ikastegian

3 garren eskolakoa.

Otsoa eta bildotcha.

Azkarrenaren arrozoina bethi hoberena dela ichtantean frogatzerat goazi.

Bildotch bat ur garbi baten gai egian edaten zagon. Barurik, otso bat agertzen da zer janen duen goseak horrat ekharrarazia

« Nundik heldu zaik nere edaria hola zikintzeko hausartzia, du erraiten abere tzarkeriaz bethe horrek. Hire kopetaz gaztigatua izanen haiz – jauna, dio bildotchak zure handitasuna ez dadila kolera bainan ikhus dezala hobeki, gaia segituz hogei urrhats bederen bera baino beherago edaten ari naizela; ez dutela beraz bere edaria

niholaz zikintzen ahal — Otso gachtoak aldiz : ur hori zikintzen duk eta hasteko bazakiat gan den urthean nitaz gaizki mintzatu haizela — Nola behar nuen egin? Ez nintzen sortua ere! Zion bildotchak ihardetsi, esnia edaten diot oraino amari — Hi ez, hire anaia orduan — Anaiarik ez dut — Beraz hire kastako norbait. Zeren eta zuek, zuen artzainak eta zakhurrak etzaizte neri kalte egiteaz lotsa : ordaina behar diat eman. »

Hortan otsoak ohian solarat eremaki du bildotcha eta jaten, bertze chehetasunik gabe.

R. Idiart

Michel Laxague

Itsasuara

Hamasei urthe

Ustaritzeko ikastegian

Hirugarren eskolan.

B (?)

Otsoa eta bildotcha.

Askarrenaren arrazoina, bethi hoberena; berehala ikusiko dugu.

Bildotch bat, egarritua, edaten hari zen ur chirripa garbi baten erdian. Huna nun otso bat agertzen den, barurik, zerbeiten bilha eta goseak toki hartarat ethorarazia. « Zerk egiten hau hoin ausart, ene ura zikhindu nahiz, dio basabere horek bere erralian. Hire urguluaz gaztigatua izanen haiz — Jauna, egiten dio arrapostu bildotchak, zure edertasuna ez dadiela hola kecha; bainan, ikhus dezala edaten hari naizela chirripan hogoi bat urhats beherago; eta beraz, batere ez dutala haren ura zikhintzen ahal — Zikhintzen duk, dio berriz basabere gaichto horek, eta nik bazakiat, juan den urthean, ene omenaren biphiltzen ari izan

haizela. — Nola egiten ahal nuen, sortua ez izanez? dio lildotchak. Orai, oraino amaren esneak hazten nu. — Ez bahintzen hi, hire anaia duk — Ez dut anaiarik — Bainan hire ahaidetarik norbeit duk. Zeren ez dautazue barkhatzen zuek, zen artzainek eta zuen chakuarek. Errana dautate: mendekatu behar nauk.» Hortan, oihan zolarat johan du otsoak eta han jaten, bertze jujamendurik gabe.

Zautaiz eremaite

M. Lasagaine

Seminarioko saiketa: ITZULPENA

Gaia: Confiance en Dieu

(Lammenais-etik jasoa)

1944

+

15 sur 30

Yainkoa baithan fidantzia.

Bi gizon auzo ziren, bakotchak zuela emazte bat, haur tipi multzo batekin, eta bere lan choïla heïen hasteko.

Eta gizon hoïetarik bat etzen bere baithan, ziolarik: « Hiltzen edo eritzen banintz, zer bilaka litezke neure emaztea eta neure haurrak? »

Eta pentsamendu horek etziolarik sosegurik uzten yaten ari zuen haren bihotza, piutuan gorderik dagon harak hau ègiten duen bezala.

Eta pentsamendu bera berdin gina izanikan ere bertze aitari, etzen batere hortan gelditu: « Zeren, zion, creatura guziak ezagutzen eta hetaz arta duen Yainkoak, arta hartuko du ere nitaz ene emazteaz eta ene haurrez. »

Eta hau bizi zen gostuan, lehenbizikoak itzulaz-rik yastatzen pausu limarik ez eta bihotzeko gosorik.

Egun batez lanean ari zelarik landan, trichte eta beldurak yoa, ikusi zituen zombeit chori sasu bathean sartzen, handik atheratzen, eta gero berehala beriz harak itzultzen.

Eta hurbildurik, ikusi zituen bi ohantze elgarren

ogdoan pausatuak, eta bakotchean unne andana bat berikitan sortuak, oraino lumarik gabe.

[Eta bere lanerat beriz itzuli zelarik, begiak ~~alth~~ altchatzen zituen artetan eta so egiten hazturia bere umer ekarriz, harat hunat zabiltzan chori heieri.

[Eta huna nun noiz eta ere ametarik bat, heldu baitzen bere mototararekin, arrano batek hartzen duen eta eremaiten, eta ama gaichoa debaldetan ari zen zalapartaka haren astaparretan aihu morastan.

Hortan, lanean ari zen gizonak senditzen du bere bihotza aitzinean baino durdukatuago «zeren, pentsatzen zuen, amaren hiltzea, haurren hiltzea da, enek ez dute gehiago ni baizik, zer bilaka litazke ni ez baninte?»

[Eta egun guzia, ilhun eta trichte izan zen, eta ganaz lorik etzuen egin.

Biharamunean, landarat itzulirik, zion bere burnarekin: «Behar ditiat ikusi ama pobre haren umeak; dudarik gabe zombeit yadanik hilak dituk.» Eta yoan zen sasuko alderat.

[Eta behatu eta ikusi zituen umeak ongi yoan, batek ere etzuen iduri zerbeit ikusi zuela.

Hortaz estonaturik, gorde zen automateko zer pasatuko zen.

[Eta dembora pochi baten buruan, aditu zuen aihu ttipi bat eta ohartu bigaren amat ekartzen zuela presa presan bildua zuen hazturia eta barreiatzen unne guzieri dener berdin, eta izan zen denen dako, eta unne churchak etziren utziak izan beren miserian.

[Eta Providentziaz desafiatu zen aitak condatu zion arratsean bertze aitari, zer ikusi zuen. Eta hunek erran zion: «Zendako egin odol gaichto? Sekula Jainkoak ez ditik uzten bereak. Haren amodioak, baditik gut ezagutzen ez ditugun segeretuak. Sinhets degagun, espera degagun, maita degagun eta segui aitzina gure bidea bakean.

«Hiltzen baninitz zu baino lehen, ene haurren aita zintazke; hil bazinte ni baino lehen, zuren aita nintake.

[Eta batala bertzea hil baginte, berak beren beharordueri buru egiteko adinerat heldu gabe, ekuanen dute aitatzat, Aita Zernetakoa.»

J. B. Mendiboure:
Orzaiztarra.

Basque

faille

J. M. J.

Jean Lespade
au gd Seminaire
de Bayonne

Confiance en Dieu
(Lamennais)

Izan zegun Jainkoaren laguntzaz -

Bi gizon ango zauden; bere emaztea eta haurño bat baino gehiagorekin bakotcha. Eta heien hazteko bakotchak etzuen bere lana bakarrik baizik.

Eta bi gizon horietarik batek irakidura bat zuukan bere bihotz chokoan: "Hiltzen bavaitz edo eritzen, zion, nere haurrak eta nere emaztea zer bilhakatuko dira?"

Eta gogoeta hori etzezakeen trunka. Eta hala nola fruitua bere baithan sorderik daukan harraz kirrikatzen baita, hala hala gogoeta horek kirrikaturik zuukan haren bihotza.

Et'aldiz gogoeta bera, berdin. berdina, pizlu izana gatik berze aita haren bihotzean, hau etzizaion behatu: "Ezen, ziola, Jainkoak eguntzen ditu bere eskuetarik yalgi-arazi dituen guziak eta orotaz arthatzen dun. Eta beraz arthatuko du ere bai nitaz, bai nere emazteaz eta bai nere haurrez."

Eta ozoan biji zen aita hau. Et'aldiz berzeak bere baitharikako edo norbeze edo bozkunun ahamenik etzuen ipar bat ochatzen.

Et'egun batez, ilhun eta bere ikarak selitua, alhorrean ari zelarik, ikusi zituen chori batzu basu batean sartzen, gero yalgitzen, eta gero laster harat beverat itzultzen.

Hunaudu zen eta ikusi bi ohantze ebaren ondo-ondoan, eta ohantze bakotchean hiru ñimiño bat baino gehiago berriki yalgiak et'oraino ez limatuak.

Bere laverat ar-itzul eta, begiak alchatzen zituen artetan eta norbeitek chori heieri: hauk berez umeen bazkatzen zuan-zuela zahiltzen.

Baniuen, hora nun chorizama hetarik bat helke zelarik bere moskotraretik, bai batek harrapan hartzen duen et'ainen airea errenuaiten. Eta doa amagaichoa, tiinta manaskan, debaldetan begal ukaldika haren aztapainen arteau.

Hori ikusi eta, ~~"asaldatua oraino ainguiean, baino gehiago, bere baitha guziak miretzen zuukan lanean ari zen gizona~~: "Ezen, zion ogeoak, amaren ahiltzea, haurren hiltzea da: Nere haurrek ez dute hek ere ni baizik. Ni zuan nabila, zer bilhaka laitezke?"

Eta egun guziau ilhun eta goibel egon zen, eta berik etzuen egin aratseau.

Biharamunean, alhorrerat bara-zuin eta, "nahi ditiat, derama, ama gaicho

haren umeak ikusi. Ez duk berzerik! Eugueitik bat baino gehiago baduk gosearekin hilik." Eta badoa dasurat.

Eta, so eta so, ikusten ditu umeak avras ontsa: bihi batek etzuen iduri deuseren eskasik ukan zuela.

Zer ahal zaiteken, Kordokatua, gordatzen da ikusteko zer gertatuko zen.

Et'ipar baten buruan tiuntaño bat aditzen du et'ikusten hegalek joan ahala heldu bigarren ama bildu bazkarekin eta bazkaren emaiten ume ñimiño guzieri behechgoarik gabe. Izan zen guzienzat eta umechurche behavrak ez ziren izan baztertuak heren behavrean.

Eta Letarteaz ikaran zagon aita harek zer ikusi zuen evran zion aiatsean berze aita hari: "Zertako Kordoka?, dio humek. Bere hauvrak Jainkvak nihoiz ez ditik bazterrerat uzten. Badik haren amodioak guk ezagutzen ez dakogun chokorik. Sinheto, goita eta maita dezagun, eta goatzila bakean gure bideari."

"Hi baino lehen hiltzen banaitz, nere hauvrek aitazat hi izanen hute; ni baino lehen hiltzen bahitz, ni nuk hirenen aita izanen.

"Eta hek beren behavreri buru emaiteko adineratu gabe, bat eta berzea, hiltzen bagira, aitazat ukanen die zeruetan dagon Aita."

– Lamennais –

Le 28 mai 1927

Jn Lespade

22 sur 30

Jainkoa baitan fidantzia

Bi gizon elgarren hauzo ziren; biak ezkonduak, ~~eta~~ haur ttipi andana batekin eta ororen hazteko, bakochak bere lana bakar bakarrik. Bietarik bat kechatzen zen bere baitan erranez: « Hiltzen vanaiz edo eritzen, zer bilhakatuko dira ene emaztea eta haurrak? » Gogoeta horrek ez zuen aphur bat ere uzten eta bihotza mirriskatzen zakon har batek fruitu bat eguiten duen bezala, haren barnean gordea dagolarik.

Alta gauza bera gogoetatu zitzaion bertze aitari ere, bainan ez ~~zakon~~ zuen guehiagoko demborarik galdu hartan erranez:

« Jainkoak, zornak ezagutzen baititu kreatura guziak eta heieri kasu egiiten, begiaturen gaitu ni eta nere haurrakere. »

Hau bakerik haundienean, ~~bertz~~ bizi zen, bertzeak aldiz ez zuen sekula bake mikorik ez eta ere bihotzeko gozorik.

Egun batez lanean ari zelarik bere landetan ilhun eta laneko gogorik gabe, bere beldurrarekin, ikusi zituen zombait chori ~~batzu~~ sartzen brasta batzuetan, ateratzen eta dembora gutirik barnean berriz yiten. Hurbiltzen da brostari eta ikusten bi chori ohantze bat bertzearen ondoan, bakotcha ume andanana batekin, berriki atherayak eta oraino lumarik gabeak.

Bere lanerat itzuli eta arthetan begiak altchatzen zituela behatzen zuen chorier zoinak ari ziren: Joan, jin eta bazka ekar beren umeeri.

× oraino ainzinean baino gehiago asaldatua bidaditu zuen bere baitha guzia lanean ari zen gizonak ←

Bainan horra nun ama heietarik bat sartzen ari zelarik bere aokadarekilan, arrano batek hartzen duen eta eremaiten. Ama dohakabeak debaldetan indar egiten zuen haren haztaparretarik atheratzeko eta saminki chichtu egiten.

Gauza hori ikustearekin lanean ari zen gizonari bihotza gehiago ilhundu zitzaion zeren gogoeta hau egiten zuen bere baitan: „Amaren herioa, umen herioa da. Nerek ere ni baizik ez dute. Zer bilhakatuko dira, niri huts egitea gertatzen bazait!„ Egun guzia iragan zuen ilhun eta dohakabe eta gau guzitik ez zuen lorik egin ahal izan.

Biharamunean landetarat itzuli zelarik bere baitan egin zuen: „Nahi ditut ikusi ama gaicho haren umeak. Dudarik gabe bat baino gehiago oraikotz hilik daude.„

Brastaren alderdirat hartu zuen, behatu eta ikusi zituen ume guziak itchura onean. Bihibatek ere ez zuen iduri amaren eskasa ezagutu zuela. Gauza horrek pochi bat harritu zuen eta gorde zen ikusteko zer gertatuko zen. Dembora gutirik barnean entzun zuen chichtu ttipi bat eta ikusi bigarren ama ekartzen demborarik galdu gabe bildua zuen janaria edo bazka, ume guzieri zatitzen bate behechgorik gabe eta ~~bakotchak~~ izan zen ororen doja. –

Hola umezurtz dohakabeak ez ziren izan laguntzarik gabe utziak beren behar ordu haundian.

Jainkoaren laguntzaren baitan fidantziarik izan ez zuen aitak erran zion aratsean bertze aitari zer ikusi zuen. Hunek ihardetsi zion: „Zertako grina; Jainkoak ez ditu sekula bereak ahazten. Haren amodioak baditu segeretu batzu guk ezagutzen ez ditugunak. Sinhets dezagun esperantza izan, maita eta gure bideari jarraik bakean. Zu baino lehen hiltzen baniz, ene haurren aita izanen zare, zu hiltzen bazare ni bano leheno, ni izanen naiz zureen aita eta bat eta bertzea hiltzen bagiria ~~gu~~ haurrak berenaren egiteko ahalean izan gabe, aitatzat zeruetan den aita izanen dute.

Chilibolost Michel.

22 sur 30

Jainkoa baitan sinhesterekin igurikatu behar dela

Bi gizon elgarren anzoan bizi ziren, bakhotcha bere emazte eta haur katsiarekin eta heyen bizipidetako bere lana bakharrik. Bietarik bat bere baitan arrangura zen, ziolarik: « Hiltzen ba niz edo eritzerat heldu ba niz, zer bilakatuko dira ene emazte'ta ene haurrak?" Gogoeta hori etzezaken ohil eta bihotza zakon-faten, hala-nola bihian gorderik dagon harrak, hori faten duen bezala.

Naiz ganza bera gogoetaratu zitzaion bertze aitari ere, etzen gehiagorik acholatu, ezen zion « Jainkoak bere egintza guziak ezagutzen eta gerizatzen dituenak, arta hartuko dik nitaz ere, bai eta ere ene emazte'eta ene haurrez. »

Eta bakean bizi zen; lehenak aldiz etzuelarik bere baitan gozatzen ez sosegurik ez gozorik. Egun batez lancan ari zelarik kampoan, hits eta desegina bere beldurrarekin, ikusten ditu chori batzu sasi batean sartzen, hautik ateratzen eta laster oraino beraiz jiten; urrantzen da eta ikusten ditu bi ohantze elgarren ondoan ezarriak, bakotchean zombait unne berriki ateraiak eta oraino humatzekoak.

Bere lanerat juan eta, noiztenka begian altchatzen zituen eta behatzen juan-jinka beren unnen hazkurria ekartzen zutela zabiltzan chorier. Eta horra nun, ama hetarik bat heldu zelarik bere ahokadarekin, austore bat lotzen zaion, duen eremaiten, eta ama gaichoa debaldetan zalapartaka ari zen aztaparren artean, ttinka z samin batzu egiten zitucla.

Ganza hori ikustearekin, lancan ari zen gizonak, lehen baino arrangura du bere baitan, "asmatzen zuelakotz" ama hilez geroz, umeak hilak dituk.

Bihiaramuncean " Nuek ere nic bakharrik ; zer bilakatuko dituet, huts egiten badaet? » Eta egun guzia ilhun eta hits iragan zuen eta gauaz berik etzuen egin.

Biharamuncean laudarat jin zelarik, Jesu bere bahtan : « Behar ditiat ikusi anma gaicho haren ungeatik ; ez duk sudarik kutsia engoitik hilatik dituk » eta badoa tabiari buruz. Eta behatzearekin, ikusten ditu uneak sendo ; batelk ere etzuen ikusi sens paiaturik. Gauza hortaz harritua, gorbetzen da ikustetako zer gertatuko zen. Eshe labur batez buruan antemaiten du aihuño bat eta ikusten bigarren anma aiduru ekhartzen hilbu zuen azpikuria ; zatitu zuen unne guzieri berdin ; sencutzat bazen eta unne churtchak etziren bazterrerat utziak izan berey ezerian.

Eta jainkoaren arduratasunaz sulatu zuen aitatik, ateri hartan erran zion bertze aitari, zer ikusi zuen. Eta hunetik charrestako : « Arrangura ? zertako ? Egundaino jainkoak bereak ez ditu beren gisa utzi. Haren anodiak baditu ezagutzen ez bitugun segeretu batzu. Sinets bezagun : Sinets bezagun, haren gauik iguriltza bezagun maitu bezagun eta bakean goazen aintzina gure bidean. Zu baino lehen hiltzen bada, ene haurrentzat izanen zirae aitá bat ni baino lehen hiltzen bazira zuretaz arta harturko dut, eta bat ala bertzea hiltzen bagira, berenez beren egitekho adinerat hobu gabe, hor izanen dute Aitá Zeruetan.

M. Mendiboure

Jean Baptiste Mazéris
Grand-Séminaire
Bayonne

JHC
22 avr 30

+

Uska-lan.

Jinkoaren sinbestekin éginduktzia.

(Souletin)

Bi gizon aizo ziren, eta baietarik bakhotchak bazian emaztia eta baour ttipi ountsachka ; eta baien ororen bizipidetako bere lana bera.

Hourra-noun gizon baietarik bata eskerniatzen zen erranez : « Hil edo erit banendi zer jin litazke ene emaztia eta ene haourrak ? »

Arrentkura horiek etzian habore uzten ; eta bai ttipiki-ttipiki motchorkatzen bihotza hala-noula haurrak motchorkatzen beitu uzta noun ere saartzen beita.

Nabiz ber arrentkura jin zeion bergaiza, beste aitari ere, etzen orobat hortan ekhuratu : « Ezi, zioun, jinkoak ezagutzen beitutu berak egin guziak eta hetzaz kasu hartzen beitu, bergaiza, kasu harturen du ere bai nitzaz bai ene emazte eta haourrez. »

Holatan haou bakian bizi zen, bena lehenak arte hartan etzin demendren zori-hountarzunik ez boztariorik tehestatzen.

Egun batez kampo-lanetan ari zelarik, bethi bezaiñ erreus eta zedi bere lotsaren pian, ikhousten du tehori zombait khapararte batetan sartzen, hantik elkhitzen eta hanti laster arrahatjiten.

Hullantzen da, eta ikhusten du haiñ bestereki bi habia algarren khantu-khantian eginik, haïetarik bakhotchian bazen hume saldochkot bat orano berri kuskutik elkhirik eta orano ~~pikarai~~ pikarraï

Lanialat arra utzul eta, nouichta-nouichta begiak altehatzen zutian sogiteko tehori haïer, ~~zaiñ~~ joun-jinkan ari beitziren bere humer hazkurriaren ~~ekhart~~ bilhatzez.

Houna-noun ametarik bata sartzen zelarik bere muskotarekin, bat-batetan, boulltro batek hatzemaiten du eta aidez-aide altehatzen, ber demboran ama gaïchouak indarkatzen zelarik ~~ezen~~, bena hutsila, haren aztaparren artian, heiagoa ozen elibat entzunerazten zutian.

Horren ikhoustiari gizon lanian ari zenak asmatzen du bere arima aitzinetik beno orano ourdinago Houna zer zian gogouan. « Amaren hiltzia, humen ere hiltzia date. Ene haourrek ere eztie ni baizik; zer gerthatuko dira ni mentsten banitzaie.? »

Egun orotan ulhun eta erreus egonik, gaia hel eta etzian lo pikorrik egin ahal izan.

Biharamenian, beriz alhorrilat utzultziarekin ~~ultziareki~~ haou dio bere buriare ki: « Nahi dut ikhousi ama ~~g~~ dohakabe haren humiak: prefosta zombait zenturik dira oraikoz. » Eta ber demboran badoua khaparrtoiari buruz.

So egiten du eta ikhousten tehori humiak oro ountsa ekharten; ez batek etzian uduri egari ziala.

Hortzaz harriturik, gordatzen da so-egiteko zer igaraiten zen. Dembora llabur baten burian, entzuten dut piunta bat doi-doia ezagun / eta ikhousten du bigerren habiaren ama ekharten laster-lasterra bildu ahal ukhen zin janharia, eta ororen behezkeriarik bate gabe emaiten deie beren mouchiñia, bazen ororentako, etzien zurtzak ahatzerik beren zori-gaitzian.

Arratsen, aita, zeluko lagungoua hounaz dudatu zenak, erraiten do beste aitari, zer ikhousirik. Beste harek ordian haou erraiten deio « Zerentako arrenkurat? Egunda no jinkouak eztutu beriak utzi. Haren maitetarzunak badu hountarzun gorde elibat gouretako, guk ezagutzen eztutugunak. Linhets dezagun hartan, eguki dezagun haren ganik, eta maithat dezagun, eta hola bakian aitzina ~~gou~~ gouatzen

buitre (Vautour)

gure bidian.

« Ni hiltzen baniz zu beno lehen, ~~z~~ izanen ~~z~~ zira ene haourren aita, eta zu hiltzen bazira lehenik, ni nukezu zouren aita. Best'alde bai bata bai bestia hiltzen bagira goure haourrak herenaren irabazteko hountu gabe; Aitatako Aita zelietakoua dukie.

Laus Deo

JBte Mazéris

Barcus ...

Prière de vous rappeler que vous avez à faire à un Souletin

22

Yainkoa baithan behar dugun fidantzias

Behin batez baziren bi auzo, biak familiatuiak, haur lerro banarekin, hok oro yitekoak, eta denak bere lanetik hazi behar.

Bi auzo hetarik bat beraz, grigna tzar batek hartarik, gogoeta zagon, bere baithan egiten zuelarik: "Hiltzerat edo eritzerat heldu bahiz, zer bilhakatu behar dira hire emaste eta haur gaichoak?" - Eta sarthuan sarthu, grigna tzar horrek ez zakon bakerik uzten, eta kitzi kitzi, haryo fruituan alha den harraren gisa, barne guzia ~~beretzerat~~ beretzerat zeram(ak)on.

Bigarren auzoa ere gogoeta berak eginik zagon, bainan gehiagoko khechagune ~~eta~~ edo hersturarik gabe, ziolarik: "Yainkoak bazakik zer duen eginik eta orotaz artha hartzen dik; orhoituko ahal duk bada hitaz, ~~ene~~ hire emaste; eta haurretaz". - Eta gisa hortan, bigarren hunek dosegu gozo batean zeraman bere bizia, bertzeak ez zuelarik aldiz sekula santan behar bezalako deskantsu ez bihotzeko gocho bat yastatzen ahal.

Egun batez, kampo-lan batean ari zelarik

haren umiak, gehienak hilak zuzkek ba engoitiik"
Badoha beraz delako sasiperat eta zer du ikhusten?
ume guziak erne eta pichkor, ez zuten seurki iduri
eskasiarik ikhusi zutela

Estonatua gordetzen da, eta barrandan phaatzen zer
iraganenden ikhusteko. Ichtan baten buruko aditzen du
Aiuttaño bat: huna bigarren ama zalhu zalhuia
beregi
heldu umen phazka bildurik, nehor behechi gabe
zathikatzen du, dener beren pochia emaiten du.
ume churtcher berdin, bazterrerat utzi gabe beren
eskasia gorrian

Arratsa yin zelarik, Yainkoaren zuhurtzia arthatsua
baithan sinheste ahula izan zuen aita harrek
khondatu zun bigarren aitari zer ikusirik zagon.
Eta hunek arrapostua: "Zertako buruak bero?
Yainkoak ez ditik sekula bereak ahanztten. Guk
ezagutzen ez asmatzen ahal ez ditugun itzuliak bazauzkak
haren bihotzak. Sinhets dezagun, maitha dezagun
eta goazen aintzina gostuan bakotcha gure bideari
Hi baino lehen hiltzen banis, ene haurrak hire gain;
eta hi lehenago yuhan bahiz hire haurrak eneak izanen ditak
Eta biak, berenaz eiteko heinerat heldu baino lehen, hiltzen
bagira, aitatzat ukhanen die han zeruetan dugun
Aita hura

S. Mailluquet
d'Hasparren

Arichtezjak ezindua, bere bethiko grigna zela medio, ohartu zen sasipe batean sartzen ziren choriño batzuer eta ikhusi, handik yali ondoan, berehala lekhu bereat biltzen zirela.

Hurbiltzen da beraz, eta ikhusten ditu bi ohantze bat bertzearen aldian, eta bietan ume andana bat doidoia kuskutik yaliak eta oraino larru has.

Bere lanerat itzuli eta, artetan burua altzhatuz, ~~eta~~ behatzen zuen chori heen yuan yiner beren umeen phazkarekin.

Eta horra nun bere thornuarekin (1) sasipean sartzerat dohalarik, belatz (2) batek har eta yuhan duen bat; ama gaichoa debaldetan ari da zalapartaka aztapar zorrotz heturik yali beharrez, bihotz erdiragarri diren tiulta samin batzu egiten dituela.

Hori ikhustearekin gure langilearen barnea egundaino baino nahasiago eta ~~tricht~~ ilhunago phaatu zen " ezen, zion bere baithan, ama hil, umiak hil! Ene hek ere ez die ni baizik; zer egin behar dute ni geldutzerat heldu banaiote! "

Eta egun guzia ilhun eta trichte erazan ondoan ez zuen gau hartan lo chortik egin.

Biharamunian, bezperako lan berean baitzen: " To, egin duen bere buruarekin, behar tiuk ikhusi ama dohakabe

1° Mokotara = ne rend point l'idée de becquée
2° Belatcha = épervier j'ai préféré belatcha à arranoa p.e.q. plus commun chez nous.

Grand Seminaire

André Aranatz

Thème basque.

Fidanza Jinkuatan.

Bi gizun aizo zien, ezkunturik eta haur tchipi andana bedarerekin, oro horien phicotik bizi. Bata izigarritan bihozkatzen zen, goguan igaraiten zialarik: „Hilzen edo eritzen baniz zer bilhakatuko dirade ene emaztia eta ene haurrak!" Gogoeta horrek ezeion phausurik eta jaten zeion bihotza, hala nula har batek nun gorderik dagon fruita.

Nahiz bestiari ere ber gogoetak jin zeitzon etzeien kasurik. Ezen gogo zian: Izatia zor deien guzien jakitatia eta artha dian jinkuak, nitzaz, ene lagunaz eta ene haurrez artha harturen du." Eta holaz leñhurru bizi zen, bestiak phãsu eta barneko boztario menik etzialarik.

Egun batez, alhorian lanian ari zelarik, beldur horrek barnia ulhunturik eta iruchkirik zerolarik, tchori zumbait ikusi zuhan khapararte batetan sartzen, elkhitzen eta orano berehala jiten. Hullanturik ikuzten dutu bi habia alkharri etcheka eta bakhotchian hume andana bat berriki ikuskutik elkhirik eta orano lumatzeko.

Berriz laneraturik, noizteuka, buria alchatuz, so egiten zian khorien juan jineri, bizigallu ekharten zielarik bere humeri.

Bena hora nun, nuiz eta ere ametarik bata sartzen beitzen bere moskotarekin, bulltre batek hartzen dian eta aidatzen, nahiz ama gaichua thai gabe auherretan indarkatzen zen haren aztaparren artian, igorten zutialarik piunta bihotzgarri elibatzu.

Ikhuste horrek langiliari bihotza egotchi zeion sekulan beno haboro; " zeren gogo zian, amaren hiltzia, humen herriua zela. Enek ere nitzaz besterik eztie, zer bilhakatuko dirade, ni faltatzen banitzaie ou peut être mieux; nik hux eguiten badet ? " Eta eguna oro ulhun eta egotchirik igaran zian, eta gaian ere begirik etzian zerratu.

Biharamenian utzulirik alhorretarat, goguan dio: " Nahi ditiat ikusi ama gaicho haren humiak. Ingoitik habuenak dudarik gabe hilik dutuk. Eta thartaren onduala badua. So sagoelarik ikusi zutian humiak oro azkarian, bakhotch batek ere etzian uduri igurtztu ziala. Espantaturik, gordatzen da goaitatzeko zer igaranen zen.

Dembora llaburretan barnen, entzun zian piunta arhin batzu eta ikusi beste ama lehiarekin ekharten bildu hazkurria eta orori bardinzki zathikatzen. Izan zen ororentako eta humezurtzak etziren izan utzirik beren zorthe thorpiari.

Ordian jinkouaren arthan behar den sinhestia eskaz zian aita horrek, arratsan beste aitari erran zian zer ikusi zian. Eta hunek ihardetsi zeion: " zertako larderiaz tinkaturik egon? Sekulan

jinkuak bere haurrak ezdutu ahazten. Haren amodiuak badutu guk ezagutzen ezdutugun segretiak. Sinhets dezagun, esperantcha ukhen dezagun, maitha dezagun eta jarraiki bakian gure bidiari. „Su beno lehen joiten banai herriuak, ene haurren aita zirateke; ni beno lehen jinkuak deitzen bazutu zuren aita izanen nuzu.

„Eta biak hiltzen bagirade haurrak beraienaren egiteko adiniala heltu gabe, ukhenen die aitatzat, zelietan den Aita.“

André Aranatz

Seminariste d'Ainharp

P. S. Tout d'abord j'avais traduit la phrase suivante: „Et cette pensée ne le quittait point et elle rongeait son cœur comme un ver ronge le fruit ou il est caché.“ Gogoeta horrek etzeion phausurik eta harraskiñatzen zeion bihotza hala nula har batek mirmitkazen baitu nun gorderik den uzta.

Ces deux mots sont usités chez nous dans le langage courant pour signifier „ronger“.

Pour me conformer à l'impression courante, j'ai préféré employer uniformement le "u", bien que chez nous nous l'écrivions comme nous le prononçons, tantôt "u" et tantôt "ou" "dugu", "jinkouak"

25/

Yainkoari behar dela fidatu.

Bi gizon bizi ziren elgarren anzoan, bakotcha bere emaztearekin eta haur multcho batekin, bere lana zuelarik bakharrik heien hazteko.

Bi gizon hetarik bat griña gorrian zagon, ziolarik: «Ni hiltzen edo eritzen baniz, zer bilhakatuko dira ene emaztea eta haurrak?» Gogoeta horrek beretua zaukan eta yankatzen zion bihotza, har batek bera barnean gorderik dagon igalia yankatzen duen bezala. Bizkitartean, nahiz gogoeta bera yin zitzaion bertze gizonari ere, han etzen horri behatu, erranez: «Yainkoak, irazaki guziak ezagutzen eta arthatzen dituenaz geroz, artha hartuko du ere nitaz, ene emazteaz eta haurrez.» Azken han bizi zen beraz deskantsuan, bertzeak etzuelarik yastatzen ez pausu izpirik, ez barnetikako zorionik.

Holetan, bere alhorrean lanean ari zen batez, gogoa ilhun eta beldurrak setiatua, ikhusi zituen zombait chori sasu batean sartzen, handik yalgitzen eta laster berriz itzultzen oraino.

Hurbiltzen da, eta huna bi ohantze elgarren sahetsean ~~fun~~ moldatuak, eta hetarik bakotchean ume andana bat berriki atheraiak eta oraino lumatcharik gabe.

Bere lanerat itzuli ondoan, begiak altchatzen zituen noiztenka eta ikhusten zituen choriak harat hunat zabiltzala, beren umeri bazka ekharriz. Betbetan, huna nun ama hetarik bat sartzera zohalarik bere ahokadarekin, buzoka batek arrapatzen duen eta eremaiten airez aire; eta ama gaichoa haren aztapar-pean ari zen zalapartaka, bainan debaldetan, adi araziz bere deiadar saminak.

Hori ikhustearekin, lanean ari zen gizonak senditu zuen bere bihotza aintzinean baino asaldatuago oraino, « ezen, zion bere baithan, amaren heriotzea umen heriotzea da, eta enek ere ez dute gehiago ni baizik: ni eskasten banitzeie, zertan dira? » Egun guzia iragan zuen ilhun eta muduri, eta ganaz lorik etzuen egin.

Biharamunean, alhorrerat zohalarik, egin zuen bere baithan: « Behar dituk ikhusi ama dohakabe haren umeak; engoitik asko hilak dituzkek! »

Eta badoha sasurat buruz.

So egitearekin, ohartu zen oro untsa zoatzila: batek ere etzuen iduri pairatu zuela. Gerthakari hortaz harritua, gordetzen da ikhusteko zer iraganen den.

Bultta baten buruko, aditu zuen piuntta mehe bat eta ohartu zen bigarren ama heldu zela leyaz, bildua zuen bazkarekin; orori bardin zathitu zuen: bazen guzientzat eta gisa hortan unechurtchak etziren berengabezian utziak izan.

Arratsean, Yainkoa baithan fidantzia eskas izan zuen aitak khondatu zion bertzeari zer ikhusi zuen. Eta hunek orduan: «Zertako griñatuko gira? Yainkoak ez ditu behin ere bereak galetsi. Haren amodioak baditu guk ezagutzen ez ditugun ahopeak. Dezagun sinhets, igurika eta maitha, eta bakean yarraik giten gure sailari. Ni zu baino lehen hiltzen baniz, zu izanen zira ene haurren aita; zu lehenik yoaiten bazira, ni zurena. Eta biak hiltzen bagira gure haurrak berenaz egiteko heineratu gabe, aitatzat izanen dute gure Aita zeruetakoa.»

Jean Uhart

Seminarska naloga

Izbrani pesmi: Ch. Péguy

+

Jean Hiriart-Urruty
apez-gaiak
frantsesetik eskuaralatua

Bigarren bertutearen mixterioratеko sartzea

Parabola guziak ederrak dira, haurra; handiak dira parabola guziak, eta denak maitagarriak, parabolak.

Parabola guziak hitza dira, bai, Hitza, la parole et le Verbe

Jainkoaren hitza, Jesusen hitza.

Oro berdin-berdina, oro betan,

Jainkoaren hitza, Jesusen hitza.

Bat bertzea bezala-bezala.

(Jainkoa atheka batean jarri da, haurra, | bien holako

Atheka gaixtoan:

eskas | Gure beharretan) d'avoir besoin de nous.

Denak bihotzetikakoak dira, denak berdin-berdina, eta bihotzerat doazi,

Bihotzari dira mintzo.

Bainan denen artetik, esperantzari datxizkon hiru parabolak

Huna heldu:

Parabola guziak hala direla, hiru heiek dira, heiek, handiak eta xuxenak, heiek lañoak eta maitagarriak, heiek ederrak, heiek goxoak eta bihotzari josiak. horiek

Oro hala direla, heiek dira, heiek, gizonaren bihotzari josiak, heiek zaizko goxo gizonaren bihotzari. horiek

Bertzetarik, nik dakita? berex bezala dira.

Badaukate behar-bada beren baitan zer bat, bertzetan ez den, ez dateken halako zer bat.

Baitaukate behar-bada beren baitan .., hots, gaztetasunki ?, haurtasunki ? gorde bat,

Bertzetan holakorik badenetz ere ez baita nehor ohartzen.

Oro hala direla, heiek dira heiek gazte, heiek fresko, heiek hauriño, heiek dira heiek higatzeksoak.
Zahartzeksoak.
Higatuak, zahartuak, ez. |?|
Hamahiru, bai eta hamalau mende huntan erabilki eta, zer? bi mila urthe huntan, gazte, eta menden mendetan barna, lehen egunean bezain gazte.
~~Fresko~~, garbi, gaixoño,
Hauriño sort-egunean bezala.
Hamahiru ehun urthe huntan (izaki eta giristinoak), bai eta hamalau ehun urthe huntan,
Hiru parabola heiek, (barka diezagula Jainkoak),
#Izilka bereturik dauskate bihotzean bertzek ez bezalako lekua.
Jainkoak barka diezagula, giristinoak izanen direno,
Izanen direno, erran nahi baita behin eta behin, |bi ez|
Menden mendetan izanen da hiru parabola heientzat
Bihotzean, gordde-gorddea, xokoño bat.

Charles Péguy

"Le porche du mystère de la deuxième vertu" edo "Bigarren ekandunaren ilhunbetarako sarrgia" derizan Charles Peguy-ren olerkitik Euskualzaleen Biltzarrak berezi lan-ekheia, Pier Charritonek eskuaraz emana

?

Elegia guziak ederrak dituzu, ene haurra,
guziak handiak, guziak maithagarriak.
Elegia guziak dituzu Elhea eta Hitza,
Jainkoaren elhea, Jesusen elhea.
Guziak berdin dituzu, guziak batean,
Jainkoaren elhea, Jesusen elhea,
Hain berean.
(Bera duzu Jainkoa hain hortaratu, ene haurra,
Gutaz behartzeko behar-ordu txarrean garthatu)
Guziak berdin bihotzetik heldu eta bihotzerat
joaki,
Bihotzari dituzu mintzo.
Bainan guzien artetik huna: Itxaroaren hiru
alegiak
Heldu.

Eta guzien artean handiak zaizkigu eta xuxe-
fidèles ? nak, guzien artean kartsuak eta amultsuak,
guzien artean ederrak, guzien artean mai-
thagarriak eta bihotz-hunkigarriak.
Guzien artean hurbildanik datxikote gizonaren
bihotzari, guzien artean maithagarri zaiz-
kio gizonaren bihotzari.
Badugu hauientzat ez dakit zer atxikimendu berezi.
Baduketelakotz beren baithan — zer?..ez jakin
— bertzetan ez den, ez dateken ere zer
baitmenturaz.
Badutelakotz beharbada beren baithan halako
gaztetasun bat, ezagutzen ez dugun haur-
tasun bat.
Ez asmatzen ere bertzetan.
Guzien artean gazteak ditutzu, guzien artean he-
? zeak, guzien artean haur-hotzak, guzien
artean higatzekoak,
Atsotzekoak.
(Batere) ez higatuak, ez atsotuak.
Hamahiru eta hamalau mende hautan erabiliak

? izanak gatik, bai eta bi mila urthe hautan
ere, eta menderen mendetan, lehen egunean
bezain gazte.
Batere ez histuak, ez zikinduak, ez hantuak,
Lehen egunean bezala, berdin haur.
Eta hamahiru ehun urthe hautan baitira
girixtinoak, bai eta hamalau ehun ur-
the hautan ere,
Hiru alegia hoiek badute (jainkoa, zuk bar-
kha!)
Xokho berezi bat gure bihotzetan.
Eta jainkoak barkha diezagula girixtinoak
izanen direno
Bai haradino, beraz bethi-bethiradino,
Menderen mendetan, izanen da hiru alegia
hoientzat
le cœur
Xokho ixilño bat gure bihotzetan.
secrète

GRAND Séminaire
Bayonne.

Bertrand Maïtia.
Aincille.

Iguripeneko mixterioaz aintzin-solas bat.

itzultzea ez da emendatzea

"

Alegiak oro, haur maitea, ederrak ditutzu, eder eta handi, handi eta maitagarri.
Guziek elea eta Hitza daukate, Ez
Guziek Jainkoaren hitza, Jainkoarena bezala, Jesusena ere.
Denak, bai den denak, Jainkoak erranak, Jesusek errepikatuak eta denak berdin.
Haur maitea, Jainko ona gutaz behartzeko, zinez ateka izigarrian jarri duzu.
Oro bihotzetik heldu ditutzu, oro bihotzerat joaki eta oro bihotzari mintzo.
Bainan guzien artean, horra lehen lerroan, iguripenaren hiru alegiak.
?? Guzien artean, zoin handiak eta zoin xuxenak!.. Zer kartsutasuna eta zer amodioa!..
Bai ederrak ditutzu, eder bezain maitagarri, eta hiruak hurbil eta tinki lotuak gizonaren bihotzari, hain ditu maite.
Ez 3/ Halako leku berezi bat bezala ba omen dute, bertzek ez duketen zerbait badutelakotz, halako gaztetasun bat, halako bertzetan ageri edo kausitzen ez den haurtasun bat beharbada.
Gazte dira bai, guzien artean, gazte eta fresko, haurño batzu iduri, oraino higatzeko, oraino zahartzeko, gehiago dena behin ere higaturik, behin ere zahar-turik izaiteko oraino.
Hamahiru, hamalau ehun urte badu, zer... bi mila urte [gure eskuko direla], mendek eta mendek bezanbat urte badutela eta halere bethi lehen egunean bezain gazte, lehen egunean bezain berri, ezti eta garbi, aingeru batzu iduri.
bien ?
Hamahiru, hamalau ehun urte badu girixtinoen agertzeak, eta Jainko onak barka dezagula, hiru alegia horiek bethidanik gure bihotzetan segeretuzko lekuño bat badaukate.
Beraz, girixtinoak direno eta Jainko onak barka dezagula, bai girixtinoak direno, erran nahi baitut, bethi eta bethi, menderen mendetan, hiru alegia horientzat izanen da nehork jakinen ez duen xokoño bat gure bihotzetan.
?

B. Maïtia

Félix Rionspeyrous

-Bigarren bertuteko mixterioari behago bat- ??

Behago bat

Zoin ederrak diren alegiak, eve haur maitea, denak berdin goresgarri eta maitagarri!
Denek jainkoaren eta Berboaren berri daukute salhatzen
Denek jainkoaren eta jesusen nahia daukatelakotz berekin
Batzuek bertzek bezela den denek bat egiten dute jainkoaren eta jesusen erakaspenarekin
? — Jainkoak bere burua estekatu du, zeren, bere nahitarat, nahi izan duen gure laguntzaren beharretan jarri—
Denak jainkoaren bihotzetik heldu dira eta ~~z~~ xuxen gizonarena kausitzen dute hain dira bihotzarendako eginak.
Bainan oroz gainetik esperantzaren hiru alegiek bereziki mushatzen dute
Guzien artean zoin diren aberatsak eta atxikigarriak zoin diren eztiak eta amultsuak, zoin diren oraino ederrak eta maithagarriak zeren duten bethi bihotzari hel egiten
Beha nola dauden amarratuak gizonaren bihotzari eta zoin laket zaizkon huni!
Badute bertzek ez bezelako begitarte berezi bat bertze alegietan aurkhitzen ez den eta aurkhi ere ez ditaken zerbait batek emana.
Eta hori beren baithan badaukatelakotz menturaz gordea halako haurtasun bat edo gaztetasun bezela bertze nihun ~~ok~~ igurikatzen ez dena.
Egia erran esperantzaren hiru alegia horiek bereziki gazte

eta fresko daude hauna bezela oraino berri, bethi gordin, batere chahartu, higatu eta akhitu gabe.
Hamahiru edo hamalau mende huntan edo hobeki erraiteko bi mila mende huntan erabiliak izanak gatik beren lehen eguneau bezen gazte daude eta egonen ere menderen mende bethi.
Jeue bihotzean amodio hori Jaunditze-
arekin, jin zaut denbora berean hilaldo
beldur, jat! nago, hain garbi.
Zegon Eskual Herria e denetz
lanperaren erdian durduzatzen hasia
Apozoina bafadaka sudurretat heldu
Baitzaio bazter guzietarik.

Oraiko nidau pizu eta
Zarren Koutia, Jende ekhimz batek
Jitzik e dio. Jtsoa do berehala.
Ezluza beha errau diot Eskual Herria
Jgaldo. Hoko batentzat. Bukatuz,
hiritan heldu daizkin pozoinari
ihardokitzeko ahulegi da! Oraiko
molde delhe gogo pendimendual
arropatzian olio. Jo, chorta bezala
dira: betki zabalduz ari, inguru
guzia bustituz.

Beha zazu bada. Jure
Jaunen ed. hiririk Jkurritxuenan erdian
entzuten dien Kantuak TSTak
gure sukalde Jokoetarainoko helduz
ditu. Haundantz urtheko alaba
Jaten ari amarekin... edo amarik
Jgabe... eta Knark! botoia erriz
Jtzuk! Zer gauza Jarmegarriak!

"To, hori Jaun errekonozitu aditzen bainu!
Eta hori? Jnditutik bestiere
dut Jolaskohik aditu!" Jure
dizetako eraikaspen gothor Jmanit-
suak gure familian Jahan eta
endoiua, bainan supaster ekhoñoan
dogun, Jhogoi Jentumetretako.
Katchaño Jhorrek bertzerik dio
bizian amodioaz ezkontzaz...
Baiz! Zu gero Jkusten at gazte
Batzu beru Junetan... eta Jberdin
Jende adinetako Kopeta Jausatuak
Jer dunicht eta Jahan mendiak
Jalhan diren!! Zer Jaltsa!

Eta Jziema? Jrautziallo
Jziema etche Jhandienean erakutsi
Jdutzu ichtoia bi aste gabe
Baiman dtiaritzen Kanbon Haz-
parnen, Jarazun, Jbarnapaleun,
Jtauleun Jdugu! Eta gure, basherri
Jokoetarik Jneska eta mutxiko-all
Jhaldu diri hoiztarat Jziemalat.
Ortzegun ed. Jorunbat! Batzuez horat
ute Jdezu ari direla Baionatik.
Karrikatzu beroz bero Jazin
Jtsualdun neska gazteak? Jeta
nai berezki rosa Jalleian baitute
gurlaintzuian Jz bezala, gure labore-
Jgazteak.

Jzgoeta ahula litalle
erraitea: "Hemen Jalbu gaude."
Jz do gehiago. mendi askigoarik
TSFak Jaiean derabilan Jorroa
geldiarazik duenik. Jz do gehiago
Jrihun harrolka ed. Jzorik
oraiko mundu aren hatsez garbi
daguik.

Zoregui bera? Lehenbizi
Koitik lantzera badela onhets!

gero begiak zabaldu: bizian bi
Begiña lanera, burua itzuli gabe
soldata galdu, ikus beldurrez. Kaitzari so egin bi begiek arteaz.

Eta gero? Zer ikandoKiko du
haize azkar horri? Bada gauza
bat, nik uste: Makoteka bere gain
utziz bere vidan ekoitziko, den bezala
egin dola: galernak lasto pobrika
bezala jeremanez du. Gure daudez
etxe hauk gauza dohatsu: meta batzu
dira. Eta ditugu etxe hauetako edo
hauetako gizonak bainan mundu osoa
prozesiatzen duten gizon arigabeko.
Eta izenik gabeko batzu. Gizona
hauetako prozesiez nigunatua, Herena
asulegi da.

Nahazu bada zer gertatzen
den, herritik urrun soldado. Pehi
ed. familiatzenat doazin Eskualdun
gazteri. Lastu sedea galtzen dute
denbalo malatak uzten, eta berek,
atsekabetzen badute, orain Eskualduna
sede gaitz heien kontrek egiten dute gehie-
netan zaguzen eskuara eta ohitzkoa
Eta horri kasik beharratua da. Gazte
Eskualduna sarri dago suhiste galdetako
jenden artean, eta obatzen da dutalako
jendeak eta gizonkarere elkartzenak
(kuziaren zbantail ed. edertasun)
frangoen labe dutela hanek bere
Eskual-herri z-koan eta zituenak.
Bere guizkiniotasuna ordun, halako
gauza gutzi, ekhan bat idunitzen
zaio ekoko gostuño batekin. Ber-
guenan idenak sarri sedearen ikhusteat
sari: lantegia auzo: Karrika
zuzena jostatokiak herrikoetsea.
Denetarik gaitkod kanpo.

Barne barnetik diot orai

gizonak, nigunan ditugu gazonieri
buru egiteko beharduela bere
burua batasun ed. gizarte
baten segurtamenean. Gazarri
gure herriak gure sprophiak behar
dien izan lagunarte bero guziekin
batzu. Eskualherritik kanpo nola
hemen bereain (gauza bera ertan)
negoke bertze judo motentzat
Eskualdunek beharditute batasun
azkar batzu muntatu. Batasun
berriak eraikiz, baizan sadaurik
ditugunak berritzen beiotuz. Naiko
tendreau lanzen dohatsuak eman
behar zaio sarrasta dohatsua. Ba-
tasunak dira paganotuak, behar
zaiote bichtan jeman, batasun
guziekin tinki batzu: lagunarte
berietaik atheratako da 'halako
orgi sano bat, nigunetako paga-
nodak orgi berb sari sarraik dik.
kaitzia ulitchak argiuntzi bezala
argiuntzidi bezala. Fraluzia guzian
Bertzerik ez dute ahoan:

"Formons des communautés vivantes"
Naillo itsaso beltzaren arrasta batasun
horietan baizik ez dugu kausiteko.

Lanzerra asmatuz gure
Eskual-hebrian ari gira Eskualdun
muntzaia eta ohidurak berriz pliztu
behar: zonbaiten uste, horlek dira
etche zahar baten sutzak atsekabetzeko
emaiten dien zurezkak. Hemen bota
planeta bat hun mortero meta bat.
Zuritzen zaut peachu honek
lagunt za dizkia dakarketela
badue hor bizi berri baten lagun
bezala. Barnetik zolatik behar
dugu eskea errebertitu: gure batasun
Eskualdun gutiek tuzak behar dira
errotik bizi x izan, ez pintzeta fede

x

gaindi dariotela, eta bizi nasai
Jonen baitan 'dira gure oihidura
Jahanak betsi gazte geldituko.

Gure mintzaira Jinki beginatzea
haurrin betan erlisionearen beginatzeko
bizitzi ontza zaut. Mauriac Jobeki'
litake gure Eskualdun armia
berri Jhura phizkunik atsikitzea
ezkerki haztea bu bat abarttoz
bizala. Berenaz oduan segituko dute
dira oihuna bizi moldea eta
mintzaira eskualdunek. Bertzenaz
hatzik gabeko emplastu eihartu
batzu litazke.

Eskual herritik Vaupo
egun dieu gazteri idunitzen zaiote
Jhemen gibelatuak ginela 3. bertze
tzkietako bizi moldek lilluratzen
itsutzen dituzte guti edo asko. Gazte
horien zg dioteguu gure Eskualdi
herria Jloth daddin daraiko bizi
moldeari bebuzuik gabe. Gazteri
eraikutsi behar diotegu gizidztriotasuna
eta Eskualdunoa izaitillan ere mendez
kahan eta Jagi paldikoak, gazte
daudela eta naiko molde Herriaren
berekzko! asko ezkar eta gothor.

Hola baizik ez dugu bentzutako
Eskualdunak herritik Kanpo dien
aralgea. Aralge dago bere baitzan
daukan ostatuzain agertzeko. Mauriac
gure Jaunori bero eta argitu batean
bitzen d'hadu erroldi Jpiritea
Jesus egiazki Jauntto - gizon bat
dela gure bizitzan defa ondoan
bezala, dagona zerez bedeinkatu
izanen da? Aralge bada Jolasko togu-
rik, zer erran nahi du? Lagun
bihurtzeko homen baitan ez dudela
sinhetsi gehiago, haurrean amabiretsi
gaindi aditu tartaro edo laminen
jistorietan baino. Gizitake Jolaldi
aldi bat bizi guziko pribilejsi
badu gure fedearen mamia zerden,
ez haman manamendurik bilduma:
- Han ez haizu hori egin, Kanu
jermua ez Kunik edizea ez Ker - bainan
gure fedea dela eNorbeit:
Norbeit, bainan eNorbeit: Jesus.

Balaki'ke orduan, israeldarren
ere huri handietan denak ideki eta
mundu zabalean denak ezkar badaela
bihotzean eta pabetzean eNorbeit:
gauza eder eta ezkar guzien gagusia,
gatza ez ziek baino gehiago,
eta ezkarragoa. Zeren ahalge litake

Israelerle gaichoa zutaz
ez haiz gehiago baliatu nahi. Eskual-
herriaren amodioz nahi nintuen
Jinbeit Jesus Kristaren. Dudarik
gabe ohartu zinaiz nere haurreko
urtzaian ez zinauzela trebe:
luma Jpiritukoa dut: gauza mota
hanpoen errateko hitz berdintsuk
bilduz ezpainetarat ene zakuke
hertsikoa dutalakotz. Hemen
zarri dituztan gogoetak zidira
Jasta ed. pherekatze bat baizik.
Jesus hanitzeik bat-etorrak behar
luke bertze hainbat, lagundzat erran
nahi nintuen guziek ere.

Beraz ikus arte
Jainkoak nahi badu.

Marcel Ellendiboure

2

Anai-jantzariak, "Eskualdun" othe zarete?

Eskualdun gazteak, zueri naiz mintzo.
Beharba bitchi zauzie holako galde baten entzutea, eta anitzek ihardets zinezakete zuen fede hobenean, baietz araiz eskualdun gelditzen ziztela zuen jantza guzietan. Egia, hala balitz.....
Zorigaitzez bortchatuak gira aithortzera bethi-eta gehiago gure eskualdungoa suntsitzen ari dugula gure jantzetan ere bertze anhitz gauzetan bezala.
Zer erran nahi du beraz eskualdun izaitea jantzan ari girelarik? Erran nahi du bakharrik arrotz jantza guziak urrundu behar ditugula gure eskualdetarik eta zinez lotu gure eskualdun jantzeri, arrunt galtzerat utzi gabe.
Harrigarri da egungo egunean bereziki nola Español eta Kaskoin horiek ithotzen gaituzten beren jantza zikinekin!... eta gehiago dena ez gira ohartzen ere gure eskualdun gogoaren pozoindatzen ari girela jantza horiek onhartuz.
Uhar baten pare, den choko Hipienetan sartuak dira jantza ustel horiek, ez baitugu aski Kopetarik ukan haste-hastetik heieri ihardokitzeko. Zer helecha egiten daukuten! Zer itsuskeria eta zer laido gaichtoa gure Herriaren gainean! Zer irabazia dugun gure eskualdun arima garbientzat! Erran gabe baitoa bertze hainbertze Kaltekor izanen direla gure haurrentzat, ez balin badugu lehen-bai-lehen, guk, gaztek, burua altchatzen er-

(2) ranez nahi dugula zinez esknaldun egon gure jantzetan ere. Bertzenaz, beldur niz ez othe den berantegi izanen kotsua sobera barna sartu ondoan.

Goraki erran dezagun oraiko gazteak ahalgegarri girela hoin-bertze gau-egun "mari-mutikokeria" horietan izaganez! Iduritzen zaukn gure burua ttipitzen dugula ez baigira "bala" horietan sartzen. Erradazue, othoi, zoin da egiazko eskual-semea, jantza horietarik begiratzen dena ala bertzea? Erran nahi dut zoinek duen arima azkarrago eta zoinek ahulago? Ezen, eskual-seme izaitea lehen-lehenik girichtino-seme izaitea baita. Orhoit bagine arrotz-jantza horietan artzen giren aldi oroz gure sort-Herriari ukho egiten dugula! Orhoit bagine, bai, gisa hortan gure arbasoak eta gure Jainkoa ukhatzen dugula!.... ahalge gintezke gure ezacholakeriaz!... Bainan, zonbat ez gira itsutiak, atzegin tzar horietarik behin jastatu orduko! Hain da lehenrakorra bide galgarri hori!...

Horiek hola direnaz geroz, ez dugu zeren hobena kanpotiarren bizkar ezar, guhaun gira hobendun haundienetarik.
Dudla zonbait urthe gure ohidura chaharrez eneatuak bezala bagine, arrunt kanpo gose ginen. Alde guzietarat soa landatua ginuen eta ikusi guziak guretu ditugu gure funtsgabekerian, usteg-eta arrotz-herri horietan beizik etzela gauza ederrik edo politik. Kanpotiarrak utzi ditugu ihauri gure herian eta heien urhatseri itsutuki jarraiki gira. Egin badugu egin, hara zerk galdu eta arroztu gaituen.
Zer egin behar dugu beraz bide onerat berriz itzultzeko?
Bichtan dena da ez dela aski ohartzea errekan girela, behar dugu chutitzerat entseatu gure bortz egin-ahalak eginez.

(3) Nere usteg lan nekhe hortan ederki lagunduak izanen gira emaiten baditugu begien aintzinean gure lehengo jantzariak eta segun niz heien orhoitzapenak pitzaraziko duela gure gogo-bihotzetan egiazko eskualdungoa.
Nola ari ziren beraz jantzan gure arbasoak?
Oh! oraiko ertelco moldean ez ziren jantzan ari, bainan bakarrik jauzika, ez baitzuzten jantza lotu hok ezagutzen. Sekulan etzuten elgar hunkitzen, ez baita errana itsusiago zirela hortako. Orai deitzen ditugun "jantza luziak" horietarik ordnan zernahi mota bazazkiten eta emaiten zituzten besta-buru guzietan. Anhitz elgarren eite badute piko berak dituztelakotz, orotan aditzen dugu: erdizka.... Hirur.... jo.... lauetan.... atchik.... eskuin.... egker....
Ezpainetan irririk gabe, begiak aphaldurik, orduko muthil gazteak ari ziren luzaz jauzi horietan, eta bozkarioetan ziren zathuki eta chuchenki elgar aditu bazituzten beren urhato, itzuli eta piko guzietan. Frangotan gizon ezkondnak eta zonbait aldiz zaharrak berak, beren adina ahantzirik, ezin errechitia zutela heier so egonez, behar zuten ba beren chichka egin gazte andana horren artean.... Ah! aspaldiko mutchiko maiteak, zonbat zango akiarazi ditutzun, zonbat bulhar hatsangarazi, zonbat izerdi ichurarazi, zonbat athor bustiarazi!.... eta zonbat bihotz-min urrundia, zonbat gogo-ilhun argitu, zonbat bihotz berotu eta alegeratu!.... Zonbat aldiz gure haurrak ez ditutzu jostatu!... zonbat aldiz gure gazteak bozkariatu!... Zonbat aldiz ere ez ditutzu gure zaharrak gaztetu!... Mutchiko chahar eta garbiak, zuetan dugu gure gozoa, ez zituztegu ahantzi nahi eskualdun ziztelakotz; emaguzue indar zuen begiratzeko.....

(4)

Baditugu oraino bertze jantza-molde anhitz batzu bertzeak bezen ederrak, hala nola : makhil-jantza, baso-jantza, ezpata-jantza, Kadira-jantza .... etc... eta aipha dezagun azkenekotz deitzen dugun "jantza-Khorda." Segur hunek erakusterat emaiten derauku eskualdunen bihotza ez dela biziki ergelkeriaren gose. Zendako bada sakeleko mokanes hori elgarren artean? Ez othe ziren jaun andere gazte horiek eskuz-esku emaiten ahal? Baietz uste dugu, alta hara irakaspen haundi bat gure denboretako. Jainkoari esker jantza-Khorda ez dugu oraino hila, bainan beha dago nork goretsiko duenez bertze guziekin batean....

Zer erraiten ahal dugu oraino gure jantza chahar horietaz? Oh! anichko gauza beharba, bainan hobeago liteke-Kaskuan sar bagineza behin bethikotz jantza horiek gure eskualdun biziarekin bat egiten dutela, eta heiek gabe ez gintezkela errotik eskualdun, zerbait eskas gina dukegulakotz. Zinezko eskual-semea behar liteke bereala ezagutua izan jantzan ari delarik bertze hamar kanpotiarren artean ere. Ukhatu behar ez duguna da — odolean dugulakotz — gure arima laster salhatzen dugula gure jantza guzietan: hori, lehen pikotarik ageri den gauza da. Beha dezagun aldiz auzo-herrietako jantzarieri, gure jantzak arras ontsa ikasiak balin badituzte ere, ez dute arrotz aire hori aise gordetzen ahal; damurik, guri ebatsiak dituzte; jakin behar lukete lehen-lehenik guretako eginak direla, gure aberastasuna, gure ontasun premiatsuenetarik direla : ez da nahi duena eskualdun....

Errana da choria ogi metaren gainean ere eneatzen dela, guk ere berdintsu egin dugu hainbertze jantza galgarri guretu ditugularik, guhaunak beren gisa utzirik.

Horrek erran nahi othe du ez dugula deus egitekorik eta bi

(5)

besoak kurutzaturik egoiten ahal girela erranez : sartzerat utzi dituztenek aski dituztela berriz ateratzea. Eskualdun batek ez dezake holako solasik ibil. Ez, ez dugu lokartzerik, gure Herria maite balin badugu, lanari lotuko gira sino gutirekin.

Anai gazteak, Eskual-Herriko jantzen harat-hunatak gure esku dire. Herritar maiteak, orhoit gaiten gure eginbide hertsienetarik dela eskualdun jantzen begiratzea.... So egin dezagun jantza tzar horiek gure Herriari egin duten zauri itsusiari. Zauri hori artatu behar dugu erreberritu gabe. Hamagaichto guri! gaizkointzerat uzten balin badugu! Bertzenaz gure haurrek lanak ukanen dituzte ezin sendaraziz, aski zoriontsu oraino sendatzen ahal denetarik balin bada. Hortarik ikusazue gure hutsaren neurria, ez balin badugu gehiagoko acholarik ukaiten. Ez daiteke holakotik izan. Nahi dugunaz geroz egun hobeagoak sor diten gure ondokoentzat, bihotz onez lotuko gira gure sailari, erran nahi dut, hasian-hasi arrunt baztertuko ditugula jantza erho horiek guziak eta atchikiko gure jauzi maitagarriak.

Gure lehengo erten omen zuten, egiasko eskualdun gaztek, igandetan bezperak onduan pilota partida egin-eta, behar zuztela zonbait jauzi eman plazan berian, etcheko bidea hartu baino lehen. Ez dadiela chaharren solas hori gure bihotzetan egon, uraren gainean ichkiriatua balitz bezala.

Bertzalde, iduritzen zaut ez litekela erhokeria asmatzea eskualdun jauziak emaiten ahal litezkela Sakramendu-Sainduaren aintzinean, hain dire garbi eta ederrak. Ez dut erran nahi gauza hori ardura egin behar likela, bainan artetan bakharrik, hala nola Besta-Berriz Sakramendu-Saindua kanpoan ibiltzen dugularik, erakusterat emaiteko gure Jainko Jaunari nahi dugula gisa hortan itzaldu ahal bezenbat bertze jantzek

egiten dituzten makurrak gure herritarrer.
Bainan, gaitza errotik moztu nahi badugu, gure haurrer beha dezagun, denak bat bertzea bezen jantzari dira. Zendako bada ez dituzte ikasiko ttipi-ttipitik gure jauzi guziak? Jndar hori, ikastegitako erakusle guziek batean egin beharra da. Anhitz tokitan, nik dakita zonbat oren iragaiten dituzten arte guziz delako "éducation physique" hortan. Ez dut erten "ziminokeria" horiek airezaire igovri behar ditugula, ez, haurren onetan ezarriak dituzte, bainan, ez othe da lekurik heien artean gure jantza chaharrentzat? Astean oren bat edo bietan arizanez ere zerbait ikasten ahal lukete. Erran gabe baitoa horietan iragan orenek ez dezaketela apentziarik ere kalterik egin haurren osagarriari. Zango-sagarrak eta istazainak ederki azkartuko eta zalhutuko dituzte; eta asmatzen ahal dena dugu gure haurrak zer nahitan bezen gogotik ariko direla jauzi horietan. Hemendik ikusazue aitachoen eta amachoen atzegina haurtto horiek pikoak ederki emanen dituztelarik beren etchekoen aintzinean!

Guhaurek aldiz, anai gazteak, badaukigu berdin jantzaren tirria gure bihotzetan sü bat bezala ezin suntsituzkua dugula, ar gaiten ar beraz tira-ahala, bainan ..... geldituz bethi "eskualdun".

jainkoak ezarri dauku zainetan eskualdun odola zerbaitetako; guri da zinezko eskual-seme agertzea bereziki jantza guzietan gure Herri maitea aphaldu orde goretz dezagun denek batean.

Gora jantza chaharrak! Gora jantzari gazteak!

Beloken, 1947ko Martchoaren 25an egina –

– Dom. Guillaume Tiberry – O.S.B.

"Aphezarekin bat"

Jauna zuekin dago, anaya maiteak! Zuek aldiz ene baithan othe zarete, anaya maiteak? Ez nuke nahi azita chahala, ez eta bakharrik arnodun kalitza, bainan, zuek, ene herritarrioak, nahi zinduzketet oro batean ene eskuetan hartu eta altchatu, bai, saindu eta ohoragarri bide diren eskuhauetan, ni ez halakoa izana gatik.
Huna esku-moltsa zure aintzinean.
Ez othe duzu diru pochi hori beizik emaiteko? zer! izenik ez duen eta dena zikinez estalia den sos hori duzia bakharrik eskaintzeko?
Ez othe duzu moltsa hori beizik chahaltzeko!
Ez dea hemen nehor min duenik?
zinez! ô ene haurride maiteak, zueri burruz itzultzen nizalarik, nehor ez dea zuen artean bihotza ilhun duenik? Egia erraiteko, ez othe duzue lutsik ez eta oinazerik?
Ez dea amarik bere haurra galdu duenik? Ez eta lurrean denik bera hobenduen izan gabe?
Ez othe dea neskatcharik bere gizon-gaiak bere gisa utzi duenik, anayak dotea chahutu diolakotz?
zendako bada ebasten duzue zuen jainkoari berea duen ontasuna?
zuen nigarrak eta zuen sinestea, zuen odola kalitzean berarekin nahas, horiek guziak ditu onhartzen bere sakrifizioko, arno eta ura bezala. Bai, harekin batean, horiek dituzte egiazki arima guziak eroiten. Bere gose eta egarri guzia horietan du.
Nigar horiek, sitharra errekarat botaia balitz bezala, jainko huna! hainbertze bihotz-min debaldetan!

Urrikal zaizkote, ez duenaz geroz hogoi-ta hamar-hirur urte beizik ukan pairatzeko.

Beraz, zuen pairamenak bat egin dezala jesusenarekin, ez baigira berdin hiltzen ahal behin beizik.

Bertzenaz ere, ez duzea entzuten ahapetik mintzo zauziela erranez: "Praebe mihi cor tuum": Ene haurra, emadazu zure bihotza."

Beloken, 1947ko Martchoaren 25an egina -

Don. Guillaume Iribarry
O.S.B.

Itzultze

basque moderne

Ene anaiak, z jauna zuekinda - zuek, anaiak, nerekin othe zaizte?

Ez da bakharik jaupazpiliñua ez eta ere jaupontzia arnoarekin,

zu zira zu, ene heritxoa, nik nahi nukena atxiki, osoosorik, eta gora altxatu ene eskuen artean,

esku hauk, diotenaz, deunak eta agurgariak beitira, nihaur ez-eza izanagatik -

Huna eske-untzia luzatua - Ez othe duzu lauzirikoarlote hori baizik, izengabeko txanpon lertzodun hori baizik neri eskaintzeko eta zisku hori baizik neri zabaltzeko?

Ez bertzerik?

zer? Ez othe da hemen nekhepean dagoenik?

zueri buruz itzultzen nizalarik, oene anai-arébak, egia, zuetarik bat ez dela atsegabetan denik?

Egiazki, ez da hutsik ez oinhazerik?

Ez da bere haura galdu duen amarik?

Ez, bere hobenaz erari denik? sans que ce soit pa faute

Ez da, gizon-gaiak utzi duen neskagazterik, bere nebak eskont-saria iretsi diolakotz?

Ez, osalariak erabaki duen eririk, itxaro txara duela dakienik?

zergatik khen zuen jainkoari ber-bere duen eukia?

zuen nigaríak, zuen sinhestea, zuen odola harenarekin batean jaupontzian,
Horiek dira, arnoa eta hura bezala, haren opariaren gaia,
Horiek dute lurá ar-erosten harekin batean,
Horietaz da gose eta egari
Jainko huna, nigar horiek, zilhará hurari beheiti aurthikia bezala, hoimbertze oinhaze alferétan!

Urikal zakizkiote, hogoi-ta hamahiru urthe baizik ez beititu oinhazetan iragan zuen Nekhaustiak bat egin beza harenarekin, behin baizik ez beititake hil.

Ez othe duzu entzuten ixil-ixila mintzo, derauzula: "Praebe mihi cor tuum. Ene haurá, emadazu zure bihotza."

Anai jean B^tu Harymbat

1)

Orotan gira gu Eskualdun
Bai othe orotan fededun?

9/10

Huna zer behar den egiazko eskualduna izaiteko: izen eskualduna, eskuara jakin eta... oseba edo ahaide bat Ameriketan ukhan.

Iría duzia hori eráiten dauzutalakotz? Alta zinez ari naiz. Badakizu zombat Eskualdun joan diren Ameriketarat, ehun urtheren barna? Lauetan hogoi-ta hamar mila. Ezin ~~sinhetsia~~ sinhetsia da ez da alta egiagotorik. Gutik egin zuen nik uste eskualdun gazteriak ez bazituen lekhuak hustu. Bankatik eta Aldudetik hiruetan hogoi-ta hamar joan ziren bortz urthez, bat bertzearen ondotik: lehenardia joan bidetik, bertzeak ere joaiten omen dira. Zoazi zu gero ikhusteko ean atzemanen duzunez norbait Eskual. Herian, oseba edo ahaide bat Ameriketan ez duenik

Ez dut hemen erán gogo zer lan miresgaríak egin dituzten han Eskualdunek: huni dut bakhárik behatu nahi: heráldatze hortan, zer bilhakatu den Eskualdunaren sinhestea, zertan den orai eta zer egin behar ginuken geroari buruz.

2) "Amerikanoak erlisionea Ameriketan", hor'a zer dioten Eskual-Her'ian handik itzuli direnentzat - Egia othe da hori? Denentzat ez, ene iduriko. Bainan, ondikotz, garbiki mintzatzekotan, aithor dezagun biga-bortz ezazoldurik heldu direla eta ez direla beroenetarik doibatzako bideari lotzeko - Halarikan ere, ~~fart~~ hunarat geroz, jartzen dira bai emeki emeki

Ez da bertzenaz har'itzekorik: diote her'aldatze horietan, sinhestea bethi Hipituz dohala: hala nola Irlandako egoiliar'ak: sinheste azkar'ekoak dira, bainan ez omen du luzaz irauten heien sinhesteak her'itik ur'undu ondoan.
Halaber Eskualduna; noiz nolako hoitarik da hau ere: orai ez da gehiago meherik, bainan lehen mehe eginen zuen etxean; auzo her'ietan aldiz, haragia janen zuen jainkoaren lorean - Bere her'ian, ez ditu nehoiz Eskualdunak Phazkoak huts eginen, bainan gudari edo Ameriketan denean, ez ditu batere eginen, erdara ez dakielakoan. Hola izanki-ta, har'i zaite zu gero, Eskualdunak sinhestea galtzen badu emeki emeki atzer'ietan -

Batzu toki eskasez, bertzeak etxeko zor'en estaltzeko, Ameriketari buruz abiatu ziren Eskualdunak - Bordelen hartzen zituzten untziak, ardurenean ahal zituztenak: hor gizon eta emazte, muthiko eta neska gazte oro nahos mahasemanak ziren. Zombat neskek ez dute bidean berean, beren garbitasuna galdu eta gero sail berari jar'aiki, lan bati lotzeko lotsa zirelakotz. Geroztik badituzte hameka gogoeta eginik nigar goxoak ere ba heien ondotik, beren sinhestea, beren garbitasuna bethikotz galdurik, dakizun tokietan -

Gizonek atzeman zezaketen aiseago lana, lurkin onak beitira Eskualdunak, beitzakiten ere Amerikanoek ez zituztela xingolazko zainak - Lanari lotu ziren beraz er'otik; eremu zabal hetan bar'eaturik, hirietarik ur'un, ardura bakhar'ik bizi ziren, sinhesterik ukhan ez balute bezala -

3) Nahi dut ez zituztela menturaz ar'asahantziak amaren altzoan ikasi othoitz bakhar'ak, bainan bor'okaldi gogor'a zeramaten biziarrekin eta hola ahanzten zer zor zuten jainkoari eta diote zorigaitzez jainkoari khendua, debruari emana dela -

Anhartean, zer ari ziren jaupari eskualdunak? Egia er'aiteko, ez zakiten ber'i handirik hasara hartan eta er'ana da ikusten ez duen begiak ez duela nigar'ik egiten - Azkenean ahatik, ikusi zuten eta nigar'egin zuten - Aita Guimon, jaupari xuberotar'bat, abiatu zen lau lagunekin. Harat-eta, daukena dauke ni enauke, hasi ziren bortzak bazter'en miatzen, Eskualdunen atzemaiteko - "Ah! idazten zuen aita Guimon-ek, bazinakite zertan diren hemengo eskualdunak, ethor ~~zinezazkete~~ tazkete laster gure laguntzerat: badira hogoi mila eskualdun bazter' hotan eta ez ditugu sei mila baizik ikusirik.
Bertzeak nun ziren? Han numbait, zelhaietan, halaxe hulaxe bakhartasunean bizi, sinhesterik ez balute bezala. Eta etzen nehor eskualdun horier Jesusen hitz altxagar'ien hel-arazteko: "zathozte nere ganat, nekaturik zirezten langile guziak - Egia zen beraz, orainokoan ere Jesusen oihu deithoragar'ia: Uzta bada nasaiki, bainan langile guti

*

* *

Eta orai zertan da eskualdun gazteria? Iragan urthe izigar'i hotan, etxean egon da, ur'un zaudenen lanak behar beitziren egin. Orai denak heltuxiak beitira, zer eginen du gazteriak? Hanitz Landesetako oihanetarat badoatzi azkarki irabazten dutelakotz - Bainan lan borthitza duti, janaria xuhur', toki itsusia, nik uste ez diren luzaz hararako lanerat -

4)

Beriz ere Ameriketarat begiak landaturik dago eskualdun gaztea: untziak eta airezkoak abiatzearekin, Amerikano parast bat ethori da sor lekhurat. hauk, jaun ederak, ardura hoberenetan jauntziak; bakhar batzu ere, ahoaren bethe burgoikeriekin, beren buruer agur eginarazten dutela.

Ezagutza hertsiak beitituzte hango egoiliarekin, muthiko gazteak beren gain hartzen dituzte eta lan tokiak atzemaiten. Hola dira eskualdun gazteak beriz abiatuak Ameriketari buruz

zer bilhakatuko da heien sinhestea? Geroak eranen. Bainan nik uste haste hartan baino jaraikiago izaiten ahal diren. Huna zer eraiten zatan handik heldu zen Amerikano batek: "Bere sinhestea zinez nahi duenak begiratu, ~~ke~~ lehen baino aiseago egiten ahal du. Lehenago eskualduna guti harotzen zen bere lan-tokitik. Orai bertzerik da: jaupariak ere hurbiltzen dira beribilez, edo bertzenaz guhauren artean bat erosiz, urun joaiten ahal. Oizu jauna, ez beita egia bezalakorik, orai eskualdunek sinhestea galtzen badugu, gehienetan guhau gira hobendun."

Amerika muthikogaztena da. Neskak ardura lotsa dira hain urun abiatzeko. Nahiago dute hainitzek Paris-erat joan, hiri edera beita hura eta irabaziak ere joriagoak. Balakite bederen irabaziaren baztertzen. Ondikotz! zer uste duzu gero, gure andere hok ere, behar dira ba hangoak bezain ederak: ez beita aise ordia begitarte beltxatu horien mihisea bezain xuri ezartzea, ez eta ere zangar lodi horien mehe-araztea: aiseago bai ahatik esku-zango muthuren goritzea eta ile horitu horien kuxkulatzea.

5)

Ez ginuke ez azkenean hortaz haritu behar, erana beita gathua eta emaztea maiz beren buruen aphaintzen ari direla. Gathuak berak uririk egiten, emazteari aldiz nehork ez hola egin nahi.

Parisen den makhur handiena, eskualdun neska horien galtzea. Nihau handik heldu beiniz, eran dezaket ez dutela han eskaintza eta ikhusgari tzar baizik. Han sehi egon den emazte batek eraiten zatan: "Galtzen da Parisen neskatakia, arunt galtzen gero jauna. Ni bizi nizano, hitz dauzut ez dela ene alaba hararako. Ama batek behar du bere alabari hurbiletik jaraiki, haria oratzari bezala eta Parise urunegi da hortako. Sehi nintzan etxean, baginuen lagun bat arunt galdua. Bazabilan ardura muthiko tzar batzuen ondotik, bainan dakizun bezala: Oilo i bildari, axerien janari. Jan zioten bai zinez bere garbitasuna, neska batek ukhan dezaken edergailu hoberena."

zorigaitzez zombat ez dabiltza holohola. Ahalgez hurtuak, ez dute gehiago sor-lekhurat itzuli nahi, beren burua argi zabalerat agertu beldurez. Han daude Parise zoko batean, ahal duten bizitzea deramatela, zeren eta beitiote ithotzera dohana, laparer ere lotzen dela.

*

* *

Lehen hola, orai hola, gero nola? Bethidanik izan da, eta bada, eta izanen da sobera egoiliar Eskual Herian. Gehienak etxea hartuko eta bertze hauriak lekutuko, lan bilha, ez beita eskualduna deusetan alferkerian bainå lasterago unhatzen.

5)

Nahi dut badela toki ederik Eskualdunentzat lur zabalaren gainean. Bainan badakigu zer egiten duten beren sinheskintzaz hola baréaturik direnean.

zombaitek nahi dituzte Eskualdunak Frantzian berean egon-arazi. Nik ez nuke holakorik nahi, Frantzian lur-lana guti lagundua beita.

Bertzenaz ere, nik uste nahiago duen eskualdunak Ameriketarat joan, ~~biz~~ aiseago beita bizitzea, eta bethidanik maite ukhan beitu bazteréen ibiltzea. Baina bederazka abiatzea uzteko orde, behar ginuzke gure gazteak multxoka igori, toki bertsu-etarat. Hango Eskualdunekin hitz-harturik, hemengo buruzagi batzuek hari litzazketelan tokiak. Gazteak hola joanen dira alfer eta behardun huts egoiteko beldurik gabe, hasara hartan, hanitz egon ziren bezala.

Lanarekin, behar dugu oroz gainetik, gure Eskualdun ~~axuai~~ anai gazten sinheskintza begiratu. Guri esker aberasten badira; guri esker ere behar dute bide zuzenean ibili. Ezagutzen ditugu Jesu-Kristoren eranak: "zer on du gizonak lur huntaz jabetzetik, bere arima galtzen badu?" Bai, hori nahi dugu denek eskualtzale izaitearekin. zendako zain gure mintzairea, zendako begira gure bi eskualdun bizi-moldeak? oroz gainetik, gure sinheskintzaren begiratzeko, erdarak hanitz lohikeri ekhartzen beitu berekin. Nahi ~~di~~dugu eskualdun ohidurer jaraiki bethi, hek beitira eskualdun sinhestearen zaintzaleak.

Horiek ditu eskas, eskualdun heraldatu gazteak. Bizi den tokian, ez du hitz bat aditzen eskuaraz, ez da gehiago hemengo bizi-molderi jaraikitzen ahal. Orduan, bertze hanitz ohidura bezala, ahansten du bere sinheskintza eta galtzen bere sinhesthea

7)

Hau da bai zinez deithoragari. Oi, gu jaupari gazteak, xuti gaiten bai gure gazte lagunen zaintzeko. Eskual. Herian egoiten bagira, ikas dezagun eskualduner beren sinheskintzaren maitatzen, sail berari jaraikitzeko nun nahi gertaturikan ere, urliak eta sandiak zer dioten behatu gabe.

Gure Amerikano anaien ganat joaiteko, ez othe da nehor izanen? Haimbertze badoatzi Xina-ko eskualdetarat, eta nor da joanen bere anaien ganat? Jaupari batek behar ditu arima guziak maitatu, bainan lehenik hurbilenak. Gure hauri lagunak Ameriketarat badoatzilarik, utziko dituguia nihor gabe beren arimen zaintzeko? Ez, ez, ez ditugu hola uzten ahal, bethi debruaren aztaparétarat erortzekotan. Izanen dira ~~j~~ bai, jaupari gazteak, beren anaiekin joaiteko. Hartze beroa ukhanen dute beren heritaren ganik, eskualduna bethi amultsu beita jaupari eskualdunaren alderat. Ez ziotena Kaliforniako eskualdunek erhaztun eder bat igori gure Jaun Gieur-i, hitz hokilan "Kaliforniako eskualdunek, eskualdunen gotzaiari."

Halaber, jaupari eskualdunek ukhanen dituzte behar guziak. Hok aldiz, eginen dituzte han heri eskualdunak, arunt hemengoak bezala: hemengo mintzairearekin, hemengo ohidurekin, eta oroz gainetik hemengo sinheste azkararekin.

Eskualdun Amerikanoak erépikatzen ahalko du zaldubyk hemengo Eskualdunaz ziona:

Igandez, Ameriketan
Eder laboraria
Elizan Kantuz lorian
Plazan pilotaria
Xahar-tu ta, jar harian
Jupe-do xaxaria.

8)

Hola bada, dohatzila, dohatzila Eskualdunak Ameriketarat.
Ez dute ez, bakhar'ik beren sinheskintza begiratuko, bainan
hango egoiliar'ak ere Jesu-Kristoren meneko ezar'iko. Ahantz
ditzagun beraz, haste hartan gure her'itar'ek iragan dituzten
nekeak, Eskualdun endari esker jaungoikoak hedatuko
beitu bere Ber'i Ona.
Ez bada hola, ene gazte lagun maitek beren sinheskintza
galtzen badute, urhez estaliak izan ditela nahi badute;
ni aldiz bethi orhoituko naiz, hortaratzeko, numbait Eskual
Her'ian, eskualdunama xahar' batek, nigar' goxoak egin
dituela supazter' xokoan, eta han numbait, Ameriketako
zelai zabal zabalaren gainean, Eskualdun ene ~~ainai~~ anai bat
hil izan dela, bere mintzairean jaupari eskualdun
batek othoitzik egin gabe

Anai Jean Bte Harymbat

Beloke - 25-3-47

1

Hiriart-Urruti Jean +

Eskuara

Tuyzta ?

10/10

Lehen hala
Orai hola
Gero nola?

eskuara

Odolean duke

Aspaldiko mintzaira, eskuara. Gure aitatchi ere hala da, aspaldikoa. Eta gure aitatchik, beste aitatchi guziek bezala nik uste, bethi lehengo gauzak derabilzka gogoan eta ezpainetan. Gure mintzairak ere, mintzatzen balaki, baluke zer konda. Gaicho eskuara, noiz kondatuko othe daukuk hire ichtorioa? Hire haur denborako, gazte denborako ichtorioak, noiz jakinen ditugu? Arizan duk gizon ainhitz ichtorio horietaz zerbait zilatu beharrez. Bainan elgarren artean ere ez dituk ordean akort!

Eskualzaleen Biltzarreko jaun horiek ere jakin nahi naski lehengo zerbait berri? Lehen eskuara zer zen? Erretch baita jakitea! Oi eskuararen hastapenen gauaren beltza! Kontsola gaiten halere (ahal den bezala kontsolatzen da): beste asko mintzaientzat badakigu, (erran nahi-ta, zonbait jakintsunek badakite, nik deus guti,) nun sortuak diren eta noiz, nola handituak, nola hedatuak. Hobe othe da ororen jakitea? Ez dea ederrago michteriozko mintzaira bat, beste bihi baten eiterik ez duena, lanho batzuen artetik bezala agertzen zaukuna, erroak menderen mendetan barna sartuak dauzkana?

Eta hola gure gogoa libroki aira ditake, eskuararen hastapeneri buruz, urthez-urthe, mendez-mende, jendez-jende, herriz-herri, nahi bezain urrun. Nun geldi? Keltoekin, Iberoekin, Atalantesekin? Hots hortik othoi! Hasian hasi, gazen aintzina, eta helduko gira azkenean Lurreko Parabisu-

radino. Eta huna Adam eta Eba eskuaraz mintzo. Lehen gizonaren eta lehen emaztearen mintzaira, eskuara. Hori gezurra dela? Hea, jakintsun handiak, nun dituzue frogak?

Zonbait denboraren buruan, ikus dezagun Noe. Bere arkaren barnean dago, gaizoa, enhoatu minthua. Aitzinean ala gibelean, eskuin ala ezker, orotan urik baizik ez. Gauza hitsa, ura. Ala ez, Noe? Hobe ginuke beste zerbait. Bainan huna nun bet-betan, uren artetik, mendi-kasko bat agertzen den, Noeren aspaldiko ametsa: «Hara, hara!» hasten da oihuka. Etageroztik Hara-hara deitzen dute mendi hura. Ahantzi gabe erran dezadan, Noek bere lehen semeari Seme eman zion izena: aitortuko duzue ez zuela kaskorik hautsi horren hatchemaiteko.

Noeren ondokoen balentria! Zeruradinoko dorre bat nahi dute altchatu. Jainkoak sortarazten ditu mintzaira berri batzu, eta elgar ez dezakete konpreni. Bainan erna gaiten: Lurreko Parabisua laket-leku da, Noe ez da gizon gaichtoa, bainan ~~beh~~ zalhu behar dugu kurritu, nahi bagira hogoigarren menderadino, eta urrunago oraino heldu; eta berrehun lerroz goiti ez haizu! Adamen eta Noeren mintzairak ttutt eginen othe du bada Babeleko dorrean? ~~Zon~~ Pentsa! Zonbait menderen eta menderen buruan, mintzaira bera dute erabiltzen Eskual-Herriko harpe ziloetan bizi diren gizonek... eta emaztek, hek ere ~~ez~~ baitaude bethi ichilik. Bizi da beraz eskuara, handitzen ari da eta azkartzen.

Denbora joan, denbora jin, denborarekin Erromanoak ere Eskual-Herrirat jin. Eskualdunak direa Erromanotuko, ala Erromanoak Eskualdunduko. Erromano tonto horiek eskuara ikas? Zaude ichilik othoi! Eskuara aldiz azkarki aberastuko da, asko hitz mailegatuz, behin latinari, gero latinak Frantzian eta Espainian gaindika utzi ume guzieri. Bainan badaki eskuarak hitz arrotzen beretzen: ez ditu diren bezala osorik iresten: hemendik luza, handik motz, bere gostura ezartzen ditu bertzelakaturik.

× × ×

Goazen aintzina. Jauzi bat eginen dugu orai gaitza, hamaseigarren menderadino. 1545 eko urthean agertzen da eskuarazko lehen liburua: "Linguae Vasconum Primitiae." Ez irririk egin: achalez ez du eskualdun molde handirik, bainan barnez hala da. Decheparek eginarazten diozka eskuarari bere lehen urhatsak liburuetan. Haur chutik abiatu berriak espantu guti du: Decheparen eskuetarik ere ez da eskuara azkar eta aberats atheratuko, bainan argirat agertu bederen da. Hori ere ez dea zerbait?

Ez dugu aizinarik Decheparen ondotik eskuaraz zerbait zirri marra egin duten guzien ikusteko. Mende bakotch bat ikusten badugu, polliki da. Hamazazpigarrenean nola ez aipha Axular? Axular ez da nor-nahi gero! Eta "Guero"? Ez da egun guziez sortzen Axularen seme horren parekorik. Biltzen dute inharros-aldi ederrik, Jainkoari buruz berriz itzultzea bethi biharamunerat bezatzen duten bekatorosek. Ez dut egundaino burutik buru irakurri liburu hori (ez ahal bainiz bakarra), bainan besten erranetarik bederen ariko niz. Zer errenen dut dela? Liburu bat da mamitsua. Beste norbaitek erran balu, irri eginen nuen: hain da errech, besterik ez ditakelarik erran, erraitea liburu bat, edo mintzaldi bat, edo prediku bat, mamitsua dela! Bainan iduritzen zaut Axular-en liburua ogi freskoaren mami harroa bezain gozoa dela. Egia handiak eta erakaspen handiak badauzka, eta heieri doakoten moldean zauku mintzo. Ordu arte sujet horiek nork aipbatu othe zituen hain ederki eskuaraz? Eskuaraz diot, eskuaraz baita mintzo Axular: zuhur-hitz, ditcho, eta Eskualdun batek odolean dituen hizkuntza eta mintzatzeko molde guziak kansituko dituzu "Guero"aren lerro guzietan.

Hemezortzigarren mendeak zer dion? Pirenez hunaindian egonen gira bethi, nahiz haindian balitaken gauza ederrik ikusteko; bainan guarda tzar horiek ez gituzte uzten haradino. (guardarik tzarrena, ez jakina). Axular Saran bizi izan zen; Saran sortu Etcheberri. Etcheberri kasik Axular-en ozkan ezar ditake, omen: "Eskuararen

hatsapenak" ez dira hala-hulako liburuchka bat, eta latineko gramatikak ~~ez da gut~~ badauka gauza onik, omen. Omen diot, nihauk ez baitut biziki ezagutzen Etcheberri; halere erraiten ditudanak ez baititut nornahik erakatsiak, ez dira denak gezurrak izan behar.

Hemeretzigarren mendean agur bat Etchahuni. Besteak ez bezalako bertsularia izan da Etchahun, besteak ez bezalako bizia eremon baitu: Hipitik zerbait ikusia, nahi ez zuenarekin ezkondua, emazteak preso altcharazia, gizon bat hilik Erroman gaindika beilaz ibilia, handik landa etcherat ez haizu izanez, antzainekin mendietan egona, eta bere bizi undarraren higatzeko azkenean Etchahounerat berriz itzulia: holako gora-behera eta goiti-beheitiak ezagutu dituen gizonaren bertsuek zer indarra ez dute behar, zer hatsa, zer sua?

Mende hortan balitake asko koblari ikusteko: bihirik ez dugu eginen, nehor ez dadin jelos izan. Zonbat ere ez da arizan izkiriatzen! Duvoisin bederen behar dugu aiphatu: zer orenak eta zer egunak eman dituen kirri-kirri, izkiria eta izkiria; zer paper metak beltzatu dituen! Langile bat zen harrigarria. Konplimendu hori baizik ez balu merezi ere (zor diogu besterik ere haatik), ez da konplimendu Hipia. Lanak ez othe du eskuara ederrenak baino balio gehiago? Ez dut erran nahi Duvoisin-en eskuara hitsa dela: irakurzazue haren Laborantzako Liburua!

Hemeretzigarren mendearen undarretik goiti, orduan da orduan eskuara chatarretarik jaliko; orduan, haur baten gisa beste mintzairen ondotik til-til-til ibiltzeko orde, bere gain jarriko, berari doakon moldean kurrituko. Arbelbide eta Diharassarryk hartze lukete goresmen. Bainan beste hiru ditugu hemen aiphatuko, ez bailitake haizu heietaz bi hitzen ez erraitea:

Abbadie: Uztaritzeko semenarioan egonak direnek ez dute arrotza izen hori, Abbadie ezagutu dutenek ez baitute ahanztekoa. Hura bezalako gizonik bakan da aurkitzen: Eskualdun laborari baten izpiritu chuchen eta sarkorra, buruzagi bati doakon fermutasuna, aita baten gozotasuna, egiazko apez baten bihotza. Mintzaira, gizonaren

araberako. "Eskualdunean" laborantzaz egiten zituen artikulvek sosak balio dituzte.

Hiriart-Urruty: Larresohoko erakasle zaharretarik hau ere, eta "Eskualdunaren" buruzagi choragarria. Zer loria, haren artikulu baten irakurtzea! Eskuaraz ari delarik izkiriatzen, ez da frantsesaz hanbat orhoitzen (alta ba omen zakien frantsesa ere): uzten diozka eskuarari bere hizkuntzak, bere itzuli eta molde bereziak, bere begitartea. Egiazko Eskualduna eta egiazko Hazpandarra: handik piko, hemendik zimiko, behar-orduan eta behar-lekuan ostiko; bethi bizi, batzuetan bitzi, ezin athertuzko elhasturi batean hasten delarik. Eta noiztenka kechatzen, nola! Ez kilika orduan ezkerreko beharria!

Etchepare ba othe da hura baino gehiago? Nik ez dautzuet aise erranen: lehenik, ez baititut bat ez bestea aski ezaguten; eta gero, nola pareka holako bi gizon? Biak arrunt bi gisetakoak dira. Hiriart-Urrutyren eskuara zalhu eta ernea arno chahar meheñoa bezain ona da; bainan ez othe da bichkotcharen parekoa Etcheparen mintzaira aberats eta ederra? Edozoin suieti lotzeko on da, ideia gorenak chuchen eta garbi agertzen ditu. Etcheparek badu, Hiriart-Urrutyri behatu-eta, halako lantuagoko bat, jaunagoko bat, beztituagoko bat: iduri bethi igandetako arropak soinean; nobleki mintzo gizona. Bakotchak bere jitea. Bainan, zer nahi izan dadin, bat ala bestearen aintzinean buruhasten ahal gira: jaun handiak dira biak.

Abbadie itzali zen, Hiriart-Urruty ere ba, Etchepare berdin. Guretzat gizon horiek lehengo gizonak dira. Eta orai artio aiphatu ditugun ichtorioak, gezur ala egia, lehengo ichtorioak. Izkiriatzaletaz gira gehienik mintzatu, bainan ez dira heiek Eskualdun bakarrak. Egin dute ba zerbait eskuararen onetan, edo kaltetan, bainan nork du gehienik eskuara biziarazi eta handiarazi? Gure aiten aitek eta amen amek, ainhitzek ez baitzakiten ez irakurtzen ez izkiriatzen. Heiek dira eskuararen egiazko moldatzaleak: lehengo Eskualdunak.

...

Eskuara, lehen hala. Bainan orai zertan othe da? Nori nola

zaion. Zonbait ariko zauzkitzu behar bada dena zinkurina: eskuara galtzen ari dela, Irrekalbordako gachuchak ez duela kintik egin nahi eskuaraz, Mendizabaletako haurrak frantsesez trebeago direla, eta holako. Baditake, bainan bada besterik ere. Ainhitz herritako ainhitz etxetan ez duzue eskuararik baizik adituko, frantses gehichagoren jakitea (behar ordu etako) ez bailukete batere kalte. Eskual-Herriko haur ainhitzek badakite eskuara galda Eskualzaleen Biltzarreko jauneri; frantses hortan dira gibelachiko. Badakite ba amarraina eta zerrama ez direla gauza bera: bainan bi alimale hoieri zertako behar du frantsesak izen bera eman, odo berdintsua bederen?

Bestalde, orai bezenbat Eskualdun arizan othe da behinere eskuaraz izkiriatzen? Asko gazte frango trebe dira, ala EAC-tako lanetan artzeko, ala kazeta bati bi errroren igurtzeko, ba eta zonbait naiztenka mintzeldi baten egiteko ere. Hots, nornahik zer nahi eranikan ere, eskuara oraino frango pitikor da. Eta gero, zaintzale onak ere baditu: lo egiten ahal duzue gostuan: Eskualzaleen Biltzarra hor da, eta urte guziez, eskuararen onetan, eginen du bazkariño bat ona. Eta egun batez eskuara hil baladi, ederragoa baizik ez litake pesta: eskuara hurperat, Eskualzaleak aserat!

- - -

Iz da oraino hurpean eskuara. Chutik dago: ontsa hola. Bainan gero, nola? Gero? Iz hurrik hero! Badu zonbait mende eskuara bizi dela: zertako nahi duzue hil dadin, denboraren burruan? Ehun urtheko gizon bat ikus eta, ez duzue erranen behar bada: orai gaina dik; mende batek hil ahal izan ez duen gizona ez dik deusek hilen. Bainan eskuara, hain aspaldiksa izanik ere, gazte-gaztea da oraino: beha zazue bada zoin zabhu den, zoin plegakor, zoin aberaskor: ez da mintzaira atsotu, tontotua, gogortu hetarik. Orai arte eskuaraz aski arizan da behar bada izkiriatzen, bainan zer da hori? Hastapen bat bakarrik, primaderako lehen liliak. Bainan gero, zer udak eta zer udazkenak!

- - -

Horra hor nahas-nahas ezdeuskeria parrasta bat; puntsezko elhe guti, eta denak ere ez behar-bada suietari doazkonak. Aizina handirik ez denean, hola da: serioski nahi izan bainitz mintzatu bethi, hala ez dena frango errarien nuen. Zonbait astokeria erran behar eta, bietarik batean nahiago dut ene jakinean erran, ez jakinean baino. Baitut ~~ez~~jadanik behar baino gehiago atheraturik, huntan aski.

Jean Hiriart-Urruty
Hazpandar apez-geia.

Xarriton

Europ sion
sur 11



GERLA

Odei bat bezela jautsi zen. Dembora sobera eder eta sobera beroaren ondotik odeia jausten den bezela, lanhoak agertu orduko. Jendea aiduru egon zen holako latz batekin, zer izanen zen oraiko gerla hori. Batzuk zioten labur izanen zela, zeren tresna ikaragarriak bazirelakoan hamalaueko gerlan etzirenak. Bertzek zioten aldiz, ez zakitela noiz gelditu behara zen, zeren etsaia, "ligne Maginot" eta besten artetik ezin zitakela iragan eta Frantsesak ez zirela joanen Alemanen lurren gainerat...

Jenden izidura eta elhe hits guzien gatik, Rochalik, gerla biziki gauza urhuna zaukan, eta iduritzen zaion, Jeanne d'Arc jin gabeko ehun urtheko gerlak hein berean hunkitzen zuela. [Boinan uztailako edo ~~bulako~~ buruilako arratsalde batez, ez dakki (boinan eskolan zabilan segurik) eta beste lagunekin, Eliza inguruan josteta ari zen, ikusi zituztelarik, bi motozikleta dun aleman heldu, harma bedera bizkarrean. [Ez da mirakulu jendek erraiten baitzuten jende bortitz eta salbaiak zirela, ikusi orduko hastiatu zituen, etsaiak baizik ez zitazkela izan.

Beren bisea pizu eta bortitzaren gainean bazuten dupina berde bedera eta, burreratjautsi eta, bere botekin klusk, klusk eta klusk egiten zutela, ari zen gogoeta ostiko bat heiek emanik, sei hilabethez sendilezakela.

[Urdearen kurrinka eta chakur champaren arteko mintzaira batean ari ziren elheka - Gaicho Rochali etzen guti izitua eta haren lagunak ere ba hura bezembat beharba, bainan nehork etzuen beldur zela erakutsi nahi - Halere ~~Hil-Herrietan~~ hil-herrietan sartu ziren gorde leku hauta zutela pentsatuz.

[Handik oren bat gabe, ikusi zituzten, zaldidunak arribatzen, birazka, urhatsean, bere dupain berdeak buruan eta harmak bizkarrean. Bichtaz ikusahala urun baziren heldu zirenak. Gero-kanoiak ikusi zituzten lehen aldikotz eta lau errotako kanoiak oihalez kukuturik. Herriko plaza oro bethe zuten beren zaldiekin, bainan zer zaldiak, zuri, gris eta gorrast; bazituzten gibel alde batzu, hemengo bi zaldirenak bezembat ekoak!

[Arratsalde hartan, erientsa desolatua egon zen, bere eskolierak ez ageri eta eskola eta meria eta hilherriak inguratuak zaldiz, kanoiez eta soldadoz: hiru edo lau ehun soldado eta beste hombeste zaldi, orhoitzite ez direla koka errechak, lau edo bost ehun arima diren herri batean!

[Bi oren soldado heieri so egonik, eskolarat hurbildu ziren, dotzena bat neskato, hilherrietan gorderik egon zirenak, gaizki andana bat, denek betan bilduko zutela, bainan erientsa trichterik zagon, eta etzuen deus erran.

[Biharamunean, eskolako leihoak, ikusi zituzten, soldado batzu pantalun churitan, eta, iguzki baitzen, ari ziren, zer phesta othe zen!

[Gero bertze batzu ikusi zituzten: Oh! itsusiak, kasik buluzirik, maillote tipi batzuekin, eta arrano zuri bat, ~~kota~~ hegalak zabalduak, papo artzinean.

[Egundaino, Eskual Herrian etzen gizonik hola erabili: ez da mirakulu, erraiten baitzuten heientzat jende salbaik eta desonestak zirela...

(Segida gero)



Peskatagoas
jaun & Jondoni Santuen
urt 12

Neskatoa erremankusa.

Katichuman ikasia baitzuen, bere etsaieri behar zela barkatu eta behar zirela etsaiak maitatu, Jesusek bereak egin zituen bezala; Rochali aidanzagan Jaun Ernetarak, noiz eginen zuen predikuba bat gauza shortagz, orduan baitzitaken temorea, herri guzia etsaiez bethea zelarik. Bainan jende tropa bat fite adichkidetu zen alemanekin, ez ebanjelioari jarraikitzeko, segur niz, bainan sosa eta gauza lodi zabiltzatelakoan, haste hartan segurik. Denak on ziren heieri saltzeko, ala aroltze ala arno, ala sagar pherde, denak hartzen zituzten eta galdeginak ere pagatzen.

Bainan honiek utzirik, ikus dezagun, Rochalien herritarak zer ari ziren eta zer etsemplu ikusi zuen: zeren hautio haren karatera egina dela sortzeak eman zitzaz, bere on eta gaichtaekin, bainan ere ikusi dugken etsemplurik zorbeit egin dutela haren gainean, eta heste mende batean izanez jite berarekin, seguraz ere, hartze karatera bat izanen zuela.

Peskata bat bizi ki errenarkatua zena eta izan nahi zuena, ba zen, eta denak egiten zituen kontako. Kontakoa kasik erran nezake, ungulnak hoizik ez zuela ibiltaraiten. Bainan holako herri baju batean ungulnaren erakustea ikusi da; Rochalik hala zuzkan seguruik, eta ikusiko dugun neskata hunek beganbat bazuen behar, bainan bazuen ere, ungulnik etzuelako ungulua.

Entzutea badukezue seguraz ere!

I Maychan zuen izena, Bipherluzian sortua, alaba bakarra; hobeki ernaiteko "Andreya". Beraz ungulu pochi baten unkaiteko arrazoin bat bazuen. Herri guzian bat baizik ez baita Bipherluzeko Andreya; jaun bat, jaun Ernetora, edo mandozaina, bat diren bezela.

Frango etche ona eta gizena Karria zen Bipherluzia, ernegelide bazterren, bunak denak ingunan, dotzena bat abere bunn frango aise baiten eta estatu onean atchikitzen zituen Bipherluzek, bere muthilarekin. I Peskatoak baizik ez diren etchetan, frango mausi-etcheko andereri halako bat zaiote, muthilaren atchikitzea, bethi beldur baitira, behar ez den zerbait gertha dadien, heien alabekin. Bainan Bipherluz trankil zen eskualde hortarik, zeren May-chan, ez baitzen, bere muthilari so egiten duten neska keietarik, zombat nahi muthil ernea eta plantakoa izanik ere.

Bipherluzia etche edervat zen, bere bortha leihor pendekin, bere zumezko batkonarekin, bere muru churiekin, inthe guziez churituak sondoni dauneko asteau eta sukaldeko leihoa bethi lilis bethea. Segur Bipherluzia, plazatik ez soberaurrun, ernegelide handia hain huplil izanikere, jendek, ez zuten usu aiphatuko, hango Andreyak ez halu hain not estakurn zerbeit hatzeman bere bunaren aiphanazteko. Batian auzoko gitak edo antzarak presa ezartzen zituen, heien pultzunat igeritkatzerat jin zitelakoan. Bestian Herrika muthilari, ori hu egin-arazten zuen, meza nausi on doan, heien oihanetan hatzemanak izanen ziren Kabala guziak, bahituak

izanen zirela. Hots, berea bere nahi zuen eta eraikitsi nahi zuen jarnahi bagueta ere.

(Segida gero)



OTOA

Pour le 22

Harri batean jendelk hadakite, bat bestearen berri, heintsu batean bederen, nun dituzten beren ontasunak eta zer heinetakoak diren. Ez du balio beraz, espantuka artzea, ez eta jendeak harritu beharrez zerbeit ederren egitea!

Otoa gauza amadoa zen, aberatsentzat bakarrik egina. Hortako tabonari gehienetsuek ez zuten ottoari otoari pentsatzen, bere erkaratz kantoinean salun baten egiteari bainer. Bipherlugeko Andreyak erosi zuelarik otoa bat, otoa bat edena, lau jargi balusekin, dena din, din, din egiten zuena eta tuka bat klerona bezen ozenarekin, anabats handia egiten zuen. [Aurgoek eta beste guziek erran zuten: "Etzian hori bezik eskas, Bipherlugeko andreyak. Guk ere aise egin ginezakek, hek bezela laborari etche titi bat saldu ondoan. Eta orai nun erabili behar du, bere tresna izigarriarekin? Ez dukl laborari etchetan, aizinarik kurri erabiltzeko." [Bainan Bipherlugeko May.chan.ell, aizina hartzen zuen, Aita eta mutturila lanerat joan ondoan. Batian Donapaleuko merkatian zen, gero Salbatanen edo Donibanen, gero Bayonan edo Akizen eta beste hiri pochi bat diren guzietan, nun departamendu guzian, Panetik eta Akizeradino

ezagutua baitzen "Miss Citron enze légère."
(Izen egitikoak fite hatzemaiten dira Eskual Herrian.)

